Zegama-Aizkorri

ARITZ GORDO/SALOMON

MUNDU BAT ZEGAMAN

Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren 21. edizioa jokatuko da igandean, maiatzaren 29an. Inoizko kirol lehiarik handiena espero da aurtengoan.



– 1925etik –

iztueta

esnetan bizi gara

gailurrera bidea erraztuz!

www.iztueta.eus

Zegama-Aizkorri mendi maratoiko irteera 2019an. Munduko eta Euskal Herriko mendi lasterketari onenak elkartuko dira aurten ere. A.A.

Kirol mailarik handieneko urtea

VIII. Kilometro Bertikalak emango dio etzi arratsaldean hasiera Zegama-Aizkorriko asteburuari • Igandean dira beste bi lasterketak: 21. mendi maratoia eta XI. junior traila

–IÑAKI GURRUTXAGA

Badator berriz ere. Bi urteotakoa erabateko etena izan ez bada ere, ohiko moldeko mendi lasterketekin gozatzeko asteburua du aurretik Zegamak. Etzi hasiko da mendiaren eta korrikalarien festa handia, Kilometro Bertikalaren VIII. edizioarekin, eta igandean izango du jarraipena, 21. Zegama-Aizkorri mendi maratoia eta XI. Junior trail proba jokatuko baitira. Tartean, larunbatean, Top 10aren aurkezpena eta lasterketaren *briefing*-a izango da eskolako patioan (17:30).

Eta lehia gose horrek eraginda, inoizko maila handieneko lasterketa izango da aurtengoa. Ikusi besterik ez dago parte-hartzaileen izen zerrenda luzea, eta guztien artean pilatzen dituzten garaipen ugariak. *Trail running*-aren elitea Zegaman izango da, baina bi hutsune nabarmen ere bai: Stian Angermund-Vik eta Maite Maiora probaren errekordunak ez dira irteeran izango.

Ez dira erabat geldirik egon

Lasterketa ofizialik ez, baina bestelako ekimenak antolatu dituzte Zegama-Aizkorriren antolatzaileek 2020an eta 2021ean, eta horregatik erabaki dute aurtengo edizioa 21.a bezala izendatzea. «2020an mundu guztian zehar izena eman zuen edonork bete izan zituen 42 kilometroak.

Hautagai nagusiak

GIZONEZKOAK

Nazioartekoak. Kilian Jornet (Katalunia), Remi Bonnet (Suitza), Manuel Merillas (Espainia), Thibaut Baronian (Frantzia), Frederic Tranchand (Frantzia), Jan Margarit (Katalunia), Oriol Cardona (Katalunia), Ruy Ueda (Japonia), Nadir Maguet (Italia), Francesco Puppy (Italia)...
Euskal herritarrak. Aritz Egea (Urretxu), Ander Iñarra (Lezo), Asier Larruzea (Gueñes), Oier Ariznabarreta (Durango), Beñat Katarain (Zegama)...

EMAKUMEZKOAK

Nazioartekoak. Maude Mathys (Suitza), Nienke Brinkman (Herbereak), Marcela Vasinova (Txekia), Iris Pessey (Frantzia) Caitlin Fielder (Zeelanda Berria), Ida Nillson (Suedia), Courney Dauwalter (AEB), Emelie Fosberg (Suedia)...)
Euskal herritarrak. Oihana Kortazar (Elgeta-Mutriku), Oihana Azkorbebeitia (Abadiño), Sara Alonso (Donostia)...

> *«Gazteak badatoz, eta boluntario aldetik erreleboa ziurtatuta dugula esan daiteke»*
>
> **Maialen Arizkorreta**
> *Zegama-Aizkorriko komunikazioa*

Iaz udara pasa genuen ekimena, eta hiru hilabetetan zehar Zegaman bertan egin ahal izan zen lasterketa; korrikalarien poltsa ere bazegoen! Nolabait gure burua egoera ezberdinetara moldatu izanari balioa emateko modu bat izan da aurreko edizioak ere kontuan hartzea», zehaztu du Maialen Arizkorreta antolatzaile taldeko kideak.

Aurtengoa betiko baldintzetan antolatzeko aukera izango zutela jakin zutenean abiatu ziren, baina «martxa hartzea kosta» egin zitzaien. «Lehen inertziaz egiten genituen gauza asko ez ziren bapatean ateratzen, baina dagoeneko hartu diogu». Boluntarioekiko ere bazuten kezka, bi urteok nola eragin ote zien neurtzen ez baitzekiten, baina erantzuna «oso ona» izan dela nabarmendu du. «Gogotsu daude gehienak haien aletxoa jartzeko. Gazteak ere oso indartsu datoz, eta esan dezakegu boluntario mailan behintzat erreleboa ziurtatuta dagoela».

Plastikoa murriztu

Aurtengo jarri duten helburuetako bat plastikoaren erabilera murriztea izan da. Korrikalari guztiek beraien edalontzia eraman beharko dute, eta seinalizazioan ahalik eta plastiko gutxien erabiltzen saiatuko dira.

Zegama-Aizkorri 2022

INFORMAZIO PRAKTIKOA

Zegama-Aizkorri mendi maratoia ikusteko hainbat datu eta ordutegi baliagarri.

07:30-08:00: Zegamako plazatik autobusez Apeaderoraino igo daiteke, eta handik Sancti Spiritura Amezti elkartekoekin.
09:00: Maratoiaren irteera.
10:45-11:00: Lehen korrikalariak Sancti Spiritutik igaroko dira. 2,5 kilometrotan 500 metro igoko dituzte Aizkorriko kontrolgunera iritsi arte.
11:15-11:30: Lehen korrikalariak Aizkorrira iristeko ordua.
13:00: Ordu horretarako espero da lehen korrikalaria helmugan.
14:00: Sari banaketa.
17:00: Helmugaren itxiera.

LASTERKETA BURUA NON

Zegama-Aizkorri mendi maratoiko lehen lasterkariak kontrol guneetatik pasako diren ordua.

1. Beunda (10. km)	09:45
2. Atabarreta (13. km)	10:10
3. Aratz (16,1. km)	10:35
4. Sancti Spir. (19,6 km)	10:48
5. Aketegi (23,2. km)	11:14
6. Oltze (26,6. km)	11:22
7. Urbia (28,5. km)	11:40
8. Itzubiaga (32,2 km)	11:52
9. Moano (34,2. km)	12:04
10. Oazurtza (37,8. km)	12:36

TRAFIKOA

1. Ertzaintzak kontrolatutako puntua: 06:30etik itxita. Bereizgarriak (laranja, berdea, hori eta arrosa) dituzten autoak bakarrik sartuko dira Zegamara.
2. Intxausti industrialdea: Aparkaleko nagusia.
3. Ibarreta: 4x4 ibilgailuentzako aparkaleku alternatiboa. Herrirako sarbidea oinez edo antolakuntzak jarritako autobus zerbitzua erabiliz.
4. Otsaurte: 06:30etik 10:30era itxiko du Zegamarako sarbidea Ertzaintzak.

Aizkorrirako azken igoera, ikuslez beteta. SERGI COLOME / SALOMON

Segurtasuna, balio handi hori

Goierriko Gurutze Gorriak 50 boluntario pasako taldea mugiaraziko du lasterkarien eta ikusleen osasuna eta segurtasuna bermatzeko • Aholkuak ere eman dituzte

–IÑAKI GURRUTXAGA

Korrikalariak, ikusleak eta boluntarioak soilik ez, Zegama-Aizkorriko asteburuan kale egin ezin dutenak osasun eta larrialde zerbitzuetako boluntarioak dira. Aurreko urteetan bezala, 50-55 inguruko lantaldea jarriko du karreraren zerbitzura Goierriko Gurutze Gorriak.

Zegamako plazan jartzen dute koordinaziorako eta osasun larrialdiak artatzeko postu nagusia, eta hortik bideratzen dituzte egiteko nagusiak. Puntako anbulantzia izaten dute han, eta beste bat Urbian. Medikuak eta erizainak egoten dira horietan.

Ibilbide guztian zehar

Horiez gain, lur orotako 13 ibilgailu barreiatuko dituzte maratoiko zirkuituan zehar: Iramendin, Atabarretan, San Adrianen, Sancti Spiritun, Urbian –2 edo hiru–, Itzubiagan, Oazurtzan eta Moanon. Ibilgailuak iristen ez diren lekuetan, berriz, mendiko erreskateetan adituak diren sorosleak egongo dira Aratz gainean, Aizkorrin eta Andraizko jaitsieran. Hamabost desfibriladore ere jarriko dituzte probaren zerbitzura. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako boluntarioek osatzen dute lantaldea.

Aholkuak

Goierriko Gurutze Gorriak maratoi eguneko korrikalariei eta ikusleei emandako aholku sorta.

Ibilbidetik ez urrundu. Seinaleztatutako ibilbidetik ez urrundu, ezagutu ezean arriskutsua izan daiteke eta.
Oinetakoak. Oinetako egokiak erabili mendira joateko, erosoak eta zoru egokikoak..
Abisuei adi. Antolatzaileek eta larrialdi zerbitzuek eman ditzaketen abisuei adi egon.
Beroa. Bero egiten badu, ura edan behar da, eta ahal izanez gero eguzki izpietatik urrundu.
Ezbeharrak. Istripu edo ezbeharren bat gertatuz gero, antolatzaileei edo Gurutze Gorriari jakinarazi. Lehen sorospeneko teknikak ezagutuz gero, zaurituari lagundu.
Bideak libre. Larrialdietako ibilgailuei bidea libre utzi. Antolatzaileen eta boluntarioen agindui men egin.
Ingurumena zaindu. Aizkorri-Aratz parke naturala da. Zaborrik ez botatzeko dei berezia egin diete ikusleei.

Mendi maratoia lau hizkuntzatan jarraitu ahal izango da

EMANALDIA // Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren emanaldi osoa zuzenean jarraitu ahal izango da aurten lehen aldiz, lau hizkuntzatan. EITBn euskaraz, TV3-Esports3-en katalanez, Teledeporten gazteleraz eta Golden Trail Worls Serieseko Youtubeko kanalean ingelesez.

Keniak ordezkaritza izango du lehen aldiz mendi maratoian

LASTERKARIAK // Zazpi mendi korrikalari keniarrek parte hartuko dute lehen aldiz Zegama-Aizkorrin, bi emakumezkok eta bost gizonezkok. Horietako lauk 15 egun pasa dituzte Zegaman haien entrenatzaile Octavio Perezekin ibilbidea ezagutu eta klimara egokitzeko.

Paraolinpiar jokoetan lehiatutako gazte bat izango da irteeran

LASTERKARIAK // Pekingo Paraolinpiar Jokoetan parte hartu zuen Pol Makuri eskiatzaile kataluniarrak maratoian parte hartuko du. Hemiprasia izeneko garun paralisia du jaiotzez, eta gorputzaren erdiari eragiten dio. Iraupen eskia egiten du.

GOIERRIKO HITZAk jarraipen berezia egingo dio maratoiari

KOMUNIKABIDEAK // Egunkari honek jarraipen berezia egingo dio asteburuan Zegama-Aizkorri mendi maratoiari, webgunearen eta sare sozialen bidez. Igandean bertan maratoiaren laburpen bideo bat sareratuko du. 2019ko bideoak 116.000 ikustaldi ditu.



Hamargarren txapela jomugan

Kilian Jornet Zegaman izango da, eta 10. garaipena lortzea izango du erronka • Probaren errekorraren jabeak ez dira lehiatuko aurten, ezta azken emakumezko irabazlea ere

–IÑAKI GURRUTXAGA

«Zegamatik mundura». Goiburu hori darabil Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren talde antolatzaileak aurtengo edizioa iragartzerakoan, ahalegin berezia egin behar baitute proba guztia plataforma ezberdinetan zuzenean jarraitu ahal izateko. Bigarren adiera bat ere izan dezake lema horrek, maiatzaren 29an abiatuko da baita Zegaman Salomon kirol etxeak sustatutako Golden Trail World Series txapelketa, sei probetan aurrenekoa. Frantzia, Norbegia, Suitza eta AEBak –bitan– zeharkatu ondoren, Portugalgo Madeira Uhartean jokatuko da aurtengo final handia.

Kilian Jornet mendi lasterkari kataluniarra izango da aurten ere arreta gune nagusia. Salomon etxearekin zuen kontratua eten, eta Nnormal ekipo berriarekin lehiatuko da. Aurrez bederatzitan irabazia, hamargarren garaipena izango du jomugan. Eta errekorra? Batek daki. Gaurgaurkoz Stian Angermund-Vik norbegiarrarena da (3:45:05, 2017an), baina aurten ez da etortzekoa. Euskal herritarren artean, Aritz Egea urretxuarrak du errekorra (3:55:51, 2017an).

Emakumezkoetan bi hutsune nabarmen izango ditu aurtengoak. Azken irabazlea, Eli Anne Dvergsdal norbegiarra, ez dator, eta Maite Maiora mendaroarrak, errekorduna (4:34:27, 2007an), adierazia zuen ez zela izango. Maude Mathys eta Nienke Brikman dira hautagai nagusiak.

Denetik duen ibilbidea

Aratz-Aizkorri parke naturalaren barruan jokatzen da lasterketa, eta Euskal Autonomi Erkidegoko tontorrik garaienak zeharkatzen ditu, Aratz (1.443 metro, 16. km), Aizkorri (1.523 metro, 22,5 km) eta Aketegi (1.551 metro, 23,2 km), besteak beste. Plazatik abiatzen da (296 metro), eta zazpigarren kilometroan dagoen Otsaurteko mendatea da lehen jomuga nagusia (652 metro). Hortik gora, bidezidor eta kaltzadetan barrena, pagadi ederrak, haitz biziko malkar zakarrak eta mendi-larreak zeharkatuko dituzte lasterkariek.

Desnibel positiboaren zatirik handiena lehen 21 kilometroetan dago, eta eremu teknikoenak Aratzeko jaitsiera irristakorra eta Aizkorritik Urbiarakoa dira, Andraitz mendikoa (30. km) bera gutxietsi gabe. Hortik aurrerako bide zatia beheraka da ia, baso bideetan barrena, abiapuntu eta helmuga den plazara iritsi arte.

Zegama-Aizkorri 2022

FITXA TEKNIKOA

Eguna: 2022ko maiatzaren 29.
Irteera eta helmuga: Zegamako plaza. Irteera ordua: 09:00.
Distantzia: 42,195 km.
Pasagune kontrolak: 13.
Jan-edari postuak: 14.
Tarteko helmugak: Aizkorri (22,58 km).
Gora behera metatua: 5.472 metro.
Gehieneko altuera: 1.551 metro (Aketegi).
Gutxieneko altuera: 296 metro (Zegama).
Eremu teknikoa ehunekotan: %50 gutxi gora behera.
Gehieneko denbora: 8 ordu.
Zailtasuna: Oso handia.
Gehienezko parte-hartzaile kopurua: 500.

Garaipen zerrenda

2002	DENBORA
Juan Martin Tolosa	4:14.23
Rosa Lasagabaster	6:05:27
2003	
Fernando Garcia	4:08:44
Esther Hernandez	5:08:52
2004	
Mario Polleti	4:06:46
Anna Serra	5:27:51
2005	
Rob Jebb	3:54:18
Corinne Favre	5:03:57
2006	
Ricardo Mejia	4:03:41
Angela Mudge	4:43:04
2007	
Kilian Jornet	3:56:59
Corinne Favre	4:50:01
2008	
Kilian Jornet	3:59:33
Corinne Favre	5:00:46
2009	
Ricky Lighfoot	4:03:12
Emanuela Brizio	4:38:19
2010	
Kilian Jornet	3:56:30
Emanuela Brizio	4:47:51
2011	
Kilian Jornet	3:56:30
Oihana Kortazar	4:42:50
2012	
Kilian Jornet	3:56:04
Oihana Kortazar	4:52:50
2013	
Kilian Jornet	3:54:38
Emilie Fosberg	4:48:12
2014	
Kilian Jornet	3:48:14
Stevie Kremer	4:46:43
2015	
Tadei Pvik	3:51:11
Azahara Garcia	4:41:23
2016	
Kilian Jornet	3:50:03
Yngvild Karpersen	4:50:58
2017	
Stian AngermundVik	3:45:08
Maite Maiora	4:34:27
2018	
Remi Bonnet	3:53:56
Ida Nilsson	4:38:38
2019	
Kilian Jornet	3:52:47
Eli Anne Dvergsdal	4:36:06

Errekorrak

OROKORRA	DENB.
S. Angermund (2017)	3:45:08
Maite Maiora (2017)	4:34:27
EUSKALDUNAK	**DENB.**
Aritz Egea (2017)	3:55:51
Maite Maiora (2017)	4:34:27

Otaizabal Aroztegia, S.L.
Salbatore Auzoa. Izarraitz industrigunea.
Tel./Faxa: 943 160 684
Sakelakoa: 639 645 253/605 757 623
otaizabal@telefonica.net
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)

Campagnole doktorea
kolegiatu zkia. 20.000.473
Intsausti doktorea
kolegiatu zkia. 20.001.002
Inplantologia - Hortz estetika - Ortodontzia
HAURREN HORTZAK ZAINTZEKO PROGRAMA **PADI**
Nafarroa Etorbidea, 8-1.-A Beasain
Tel.: 943 085 229 663 934 232

ZUBIKOETA, S.L.
GASOLINDEGIA
BEROGAILUENTZAT GASOLEOA
AUTO - GARBIKETA
ERREGAI MOTA GUZTIAK
Zubikoeta Industrialdea, 1
Tel.: 943 180 486
Faxa: 943 180 487
zubikoeta@zubikoeta.es
ATAUN

Itzulera «gogoz» hartuko dute

Gogotsu eta ilusioz hartu dute korrikalariek Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren itzulera, bai lasterketa ezagutzen dutenek, eta baita lehen aldiz ariko direnek ere

–ARKAITZ APALATEGI

Bi urteko etenaren ondoren, ohiko data eta formatura itzuli da Zegama-Aizkorri maratoia, eta korrikalariek gogotsu eta ilusioz hartu dute. Lehendik ezagutzen dutenek lasterketa ona egitea dute helburu; aurrenekoz aterako direnek, ondo bukatzea.

UXUA BARANDIARAN

Korrikalaria (Zegama)

«Istripuren bat izan ezean, erretiratzeko konturik ez dudala izango argi dut»

Seigarren aldiz parte hartuko du aurten Zegama-Aizkorri mendi maratoian, baina edizio berezia izango da Barandiaranentzat. Bi urteko etena ondo etorri zaiola dio; «gorputzak atsedena behar zuen, baina pandemia bezalako zerbait gertatu ezean, nik behintzat ez dakit geldirik egoten; azkenean ondo etorri zaigu». Lasterketen harra barruan du, ordea, eta gustura hartu du bere herriko lasterketaren itzulera.

Zegamarako dortsala zuela jakinda, aurten iaz baino gehiago entrenatu du. Erritmoa hartzea kosta egin zaio, ordea. «Eguberri inguruan COVIDaren sintomak izan nituen, nahiz eta negatibo eman nuen probetan, baina harrez gero kosta egin zait, gorputzak ez zidan erantzuten». Gorabehera handiko urtea izan dela dio. «Denbora aldetik antzera nebilen, baina sentsazioak oso txarrak ziren, gogorra egin zait, batez ere buru aldetik». Azken hiru asteetan, ordea, buelta eman dio, eta berriz ere «ondo» sentitu da mendian.

Uxua Barandiaran zegamarra, 2019ko proban. JOKIN LARDIZABAL

Helburu berezirik ez dio jarri aurten bere buruari. «Zegama beti da Zegama eta faktore asko daude; lehenengoa bukatzea da, eta beti saiatzen gara denbora hobetzen, baina aurten bikotea eta biok aterako gara, eta beste era batera hartuko dugu». Izan ere, «zortea» da Zegaman bikotekidearekin batera ateratzeko aukera izatea, eta «biok bukatzea polita» litzatekeela uste du.

IÑIGO ATXA

Korrikalaria (Zegama)

«Korrikalariek meritua dute, baina boluntarioen lana ere aitortu behar da»

Maratoia oso gertutik ezagutzen badu ere, Iñigo Atxak aurten izango du estreinaldia, korrikalari modura. Urtetan boluntario aritu da, Itzubiagako postuan, eta aurten beste era batera biziko badu ere, boluntarioen lana goraipatu nahi izan du. «Korrikalariek meritu handia dute, baina baita musutruk aritzen diren boluntario guztiek ere, atzeko lan handia dago eta hori ere aitortu egin behar da».

Lasterketarako saltoa nahiko naturala egin zaio. «Korrika hasita negoen lehendik, eta zegamarra izanda, ez dago erdi biderik, maratoia egin beharra dago». Bereziki prestatu da aurten maratoirako. Lehendabiziko urtea izanda, «ondo bukatzearekin konforme» legokeela dio. «Errespetua ematen du, baina ea nerbioak gestionatzen asmatzen dugun; dakien jendearen inguruan joaten saiatuko naiz, haien aholkuak entzun eta ahal den neurrian disfrutatzen».

Boluntario edo korrikalari izan, «gustura» dago Zegama-Aizkorri ohiko moldera bueltatu delako. «Herritar bezala polita da, egun handi bat».

SARAH UGARTE

Korrikalaria (Donostia)

«Fisikoki onenean ez banago ere, ez nuen aukera galdu nahi»

Amatasunak bizitza erabat aldatu diot arren, kirolari bizimoduari berrekin nahian ari da Sarah Ugarte donostiarra. «Duela bederatzi hilabete izan nuen alaba, Elaia, eta bizitza asko aldatu zait». Haurdunaldia eta erditzea tarteko, urte eta erdiz egon da entrenatu gabe. Azken bost hilabeteetan hasi da prestaketa lanetan, eta oraindik nahiko lukeen puntuan ez badago ere, aurrerapen handia egin duela dio. «Hasierako sentsazioak oso txarrak izan ziren. Berriz hasten zarenean espero duzu lehengo mailari eutsiko diozula, baina ez da horrela, kosta egiten da berriz puntua hartzea». Orain, ordea, bere burua gero eta hobeto ikusten duela dio: «Ez nago lehengo maila bete-betean baino hobeto bai». Bikotekideak ere asko animatu duela dio, eta horrek bultzada handia eman diola.

Duela hiru urteko edizioan egindako denborari esker (5:18) lortu zuen aurtengorako dortsala. «Fisikoki momenturik onenean ez banago ere, dortsala izanda, ez nuen aukera galdu nahi». Helburuetan ere ez du atzera egin, azken edizioko denbora «berdindu edo ahal bada hobetu» egin nahiko luke.

IKER MARTIN

Korrikalaria (Beasain)

«Zegamako dortsala tokatzea loteria tokatzea bezala da, gogoz nago»

Aurreneko aldiz izango da Zegaman Iker Martin beasaindarra. Duela hilabete eskas jakin du dortsala tokatu zaiola, eta «ezustean» harrapatu du. «Pandemia aurretik apuntatu nintzen, baina bertan behera gelditu zenez, ez nuen aurten tokatzerik espero». Hala ere, gogotsu hartu du erronka; «Zegamako dortsala tokatzea, loteria tokatzea bezala da, aprobetxatu beharra dago».

Horrelako proba bat prestatzeko hilabete gutxi bada ere, ez du lo harrapatu, bikotekidea eta biak G2Hrako prestatzen ari baitziren, «astean lau egunetan» entrenatuz. Aurreneko aldia izanda, jakinda «Zegama proba gogorra» dela, «bukatzea» du helburu. Lasterketa egunean, «sentsazioen arabera» ariko da; «denbora muga bat dago eta nahiko estua da; hasieran gehiegi fortzatu gabe joan nahi dut, baina lorik ere hartu gabe».

ERREKARTE BEASAIN

ETXEBIZITZA TASATUAK ZOZKETARIK GABE

PREZIORIK ONENEAN

Etxebizitza Garajea Trastelekua

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

943 30 29 13
www.sukia.com

Zegama
Elkarrizketa

«Atletismotik nator, eta denborak kontrolatuta izatea gustatzen zait»

SARA ALONSO MARTINEZ MENDI KORRIKALARIA

Bi urte ere ez dira Sara Alonso (Donostia, 1999) mendiko trailetan parte hartzen hasi zela, eta tarte horretan inor gutxik esperotako emaitzak lortu ditu. Maratoiko podiuma ez du baztertzen.

MIGUEL ANGEL MUÑOZ

–IÑAKI GURRUTXAGA

Trailaren munduan hasi berria zarela esan daiteke. Nolatan erabaki zenuen atletismotik mendira pasatzea?

Atletismoa egiten nuen bai, eta itxialdi garaian hasi nintzen mendi lasterketako bideoak ikusten: Kilian Jornetenak, Zegamakoak, eta esan nuen nik hori probatu beharra neukala.

Zure lehenengo proba Canfranc-Canfranc iza zen, 16 kilometrokoa, eta 1.600eko desnibel positiboa duena. Bigarren postuan sailkatu zinen.

2020ko irailean izan zen. Irteera banaka zen, eta elitekoak izan ziren lehenak irteten, horietan artean Maite Maiora eta Gisela Carrion. Ni ordu eta erdi beranduago atera nintzen, eta denborak kontuan hartuta 2. sailkatu nintzen horien bien aurretik. Maioraren aurretik sailkatzea handia izan zen niretzat. Zegamako maratoiaren errekorraren jabea, niretzat erreferentea... Banekien ondo egin nezakeela, baina emaitza hori lortzea handia izan zen niretzat.

Zu zure kabuz hasi zinen, baina orain Salomon taldeko korrikalaria zara.

Mezu bat idatzi nien Salomonekoei nire burua aurkeztuz, eta bai, arreta eman zien nik egindakoak. Deitu zidaten eta haiekin hasi nintzen. 2020ko abenduan Espainiako txapeldun atera nintzen atletismoko federazioarekin. Iaz Nurian apuntatu nintzen –Zegamakoaren ordezko proba modura antolatu zuten, Golden nazionala–, eta 11. sailkatu nintzen. Nazioarteko Goldenetan ere saiatzea erabaki nuen, Dolomitetan 8.a izan nintzen, Alemanian 3. postuan eta Sky Runen ere bai. Azkenean Nazioarteko Golden Trail serieetan Top 10ean sailkatzea lortu nuen.

> *«Oso ondo sentitzen naiz, eta hirugarren sailkatu naitekeela pentsatzen dut»*

> *«Lasterkari azkarra naiz. Ordekan eta jaitsieretan ondo moldatzen naiz»*

Eta aurten ere denboraldi bikaina osatzen ari zara. Hiru lasterketa, hiru garaipen eta hiru errekor.

Bai, hala da. Zegaman ez dut uste garaipenik eta errekorrik egingo dudanik, baina oso ondo sentitzen naiz, eta hirugarren sailkatu naitekeela ikusten dut. Ibilbidea oso ondo ezagutzen dut, 7 aldiz egon naiz ibilbideko zati ezberdinak egiten. Transgrancanariako maratoia, Andaluzia Calamorros eta Espainiako Txapelketa irabazi ditut Bergan. Oso pozik nago.

Marotoiko ibilbidea primeran ezagutuko duzu hortaz?

Aste Santuan ere egun pare bat egin nituen ostatuan. Ibilbideko denborak ezagutu nahi izan ditut, pasaera bakoitzean zer denboratan joan behar dudan... Atletismoaren mundutik nator, eta denborak kontrolatuta edukitzea gustatzen zait. Itxura guztien arabera, eta eguraldia asko aldatzen ez bada, lasterketa oso azkarra izango dela dirudi.

Zer eguraldi nahi izaten duzu?

Lehorra egotea komeni zait niri, korrika egitea asko gustatzen zaidalako, baina aldi berean hotz egin dezala, hotzak ez baitit erasaten. Nik hotz egitea nahi dut, jendeak sufritu dezan. Beroa ez zait gustatzen. Iaz, Hierro uhartean, bidean gelditu nintzen beroak jota, deshidratatuta. Euririk egiten ez badu karrera oso azkarra izango da.

Podiuma aipatu duzu, izaera oso lehiakorra duzun seinale.

Bai, baina aurreneko bi postuetan ez, beste liga batean dauden bi korrikalari baitatoz: Maude Mathys suitzarra –errekor eta garaipen mordo baten jabe dena– eta Nienke Brinkman herbereetarra, Mauderi aurre egin dion bakarra, eta errepideko maratoi bat 2:22:00n korritu duena, Europako historiako denborarik onena eginez. Horien aurka ez dago lehiatzerik.

Baikor sumatzen zaizu.

Neska talde bat gaude hirugarren posturako. Ni oso-oso ondo sentitzen naiz. Espainiako txapelketa irabazi dut eta oso pozik nago, eta poz handiago ematen dit iazko denbora 8 minututan hobetzeak. Badakit oso zaila izango dela, baina gogotsu nago.

Nolako lasterkaria zarela esango zenuke?

Lasterkari azkarra naiz, errepidetik bainator. Ordeka guneak asko gustatzen zaizkit, hor aldea atera dezakedala uste baitut, eta baita jaitsierak ere, hor ondo moldatzen naiz, nire aldekoa da hori. Asko gustatzen zaizkit beheraka bukatzen diren lasterketak, eta Zegama ere halakoa da. Azken 10-12 kilometroak korrika egitekoak dira, pistetan, eta hor estutu ditzaket aurkariak. Distantziak ematen dit errespetu pixka bat, lau ordutik gorakoetan ez baitut esperientziarik.

BigMat
Kanpoko espazioa, zuen gustora eraikitzeko baliabideak ematen dizkizugu
BIGMAT URBIL_
Hiribarren Kalea 34,
20210 Lazkao, Gipuzkoa
T 943 008887

ZEZILIOENEA
HOTELA * JATETXEA

San Joan plaza, 3 * 943 885 829 * OLABERRIA
www.zezilioenea.com

«Zegaman eman nezakeen onena eman dudala pentsatu izan dut»

ARITZ EGEA CACERES MENDI LASTERKARIA

Eskarmentuak eta entrenamendu orduek ematen duten konfiantzarekin lehiatuko du Aritz Egeak (Urretxu, 1984) maratoia. Belaunaldi aldaketaren urtea izan daitekeela dio.

GOTZON ARANBURU

–IÑAKI GURRUTXAGA

Iaz ultra trailetarako jauzia egin, eta Espainiako –Penyagolosan, Valentzian, apirilean– eta Euskal Herriko –Domusan, Azpeitian, maiatzean– ultra trail txapelketak irabazita iritsiko da Egea aurtengo Zegama-Aizkorrira. Lasterkari modura «heldu» egin dela uste du, «buruz-eta lasaigo» dabil, eta helburuen artean ez badu ere, lehiari ez dio izkin egiten urretxuarrak.

Zer aldarterekin iritsiko zara aurtengo maratoira?

Inoiz baino lasaiago, egia esan. Mendi lasterketetan hasi nintzenetik, lehen aldiz, Zegama ez da helburu, baina horrek ez du esan nahi ez naizenik ondo egitera joango. Eta buru aldetik ere askoz ere lasaiago. Beste urte batzuetan, Zegama pasatu arte besterik ez nuen buruan, egiten nuen guztia hara begira egiten nuen, baina aurten ez. Zegama egingo dut Zegama egin beharra daukadalako, pentsaezina baita egiteko aukera eduki eta ez egitea.

Zuri buruari presioa kentzeko modu bat ere izango da.

Pentsatzen dut presioa kentzen ere lagunduko didala. Domusan dezenteko pasaldia eman nion gorputzari, eta ez dut jakingo errekuperatu naizen Zegamako egunera arte. Pentsa dezaket, baita ere, Zegaman eman nezakeen onena eman dudala dagoeneko, nahiz eta uste dudan hankak izan ditudala daukadan marka onena edo postu onena hobetzeko.

Eta gorputzaldiz?

Gorputzaldia aurreko urteetakoa baino askoz ere hobea daukat, diferentzia handiarekin gainera, eta burua ere inoiz baino hobeto. Horrek ere alde jokatuko du. Ondo ateratzen bada oso-oso pozik, eta gaizki ateratzen bada aitzakiak baditut, eta ez diot buelta gehiagorik emango.

Gozatzera hortaz.

Bai, hori da. Uste dut denbora ona egiteko moduan nagoela, baina podiuma eta halakoak geroz eta zailago daude. Geroz eta jende hobea etortzen da, geroz eta mailago hobeagoa dago, eta espero dezagun etorkizunean ere hala izatea, Zegamako munduko mendi lasterketarik onenetakoa izaten jarraituko duela esan nahiko baitu. Podiuma ere ez dago erabat nire esku, besteak nola datozen, nola korritzen duten... Orain hilabete izan nintzen Zegaman, eta ibilbidea paregabe zegoen, eta eguraldi egokia egiten badu ziur naiz errekora egongo dela, edo behintzat denbora oso-oso onak egingo direla.

Zegaman behintzat azkar atera zalea zara. Aurten nola planteatu asmo duzu lasterketa?

Egia da azkar atera ohi naizela, baina besteak ere ez dira askoz ere motelago ateratzen. Pentsa, Sancti Spiritun minutu bateko aldea atera izan diet soilik. Nire handicap-a aldapan behera da, gailurreriaren eren denbora galdu izan dut, eta hortaz hasieran atera beharra neukan tartea. 38 urte ere baditut, lehengo txinparta hori ere ez daukat, nabari dut hori, ez nabil lehen bezain bizi... Dakidana da jendea ikaragarri azkar aterako dela.

Ultra-trailetarako jauzia egin duzu. Zertan aldatu da zure kirol errendimendua?

Batez ere entrenamenduen ordu kopuruan dago aldea, lehen baino %50 gehiago ari naiz entrenatzen, astean 13-14 ordu. Horrek kilometroak egiteko sekulako erraztasuna eman dit. Oraintxe bertan esan dezaket 30-40 kilometro oso erraz egiten ditudala, eta lehen ez zen hala. Konfiantza ematen dit horrek. Dakidana da distantziagatik behintzat ez dudala sufrituko. Beste gauza bat da erritmoa. Gazteak oso-oso azkar dabiltza, eta haien kontra egitea geroz eta zailagoa da.

> *«Denbora ona egiteko moduan nago, baina podiuma-eta geroz eta zailago daude»*

Irabazteko hautagarik bai?

Jende asko dator. Kilian [Jornet] baldin badator bera da faborito, eta irabazten badu 10. txapela izango du, ziklo bat ixtea bezala. Manuel Merillas ere badator, Salomonetik ere jende mordoxka bat, gazte asko datoz sorpresa eman dezaketenak. Nik uste dut belaunaldi aldaketa bat ikus dezakegun Zegama bat izan daitekeela aurtengoa.

Eta Zegamaren ondoren?

Goierriko Bi Handietan parte hartuko dut. Orain arte ultretan ibili ez naizenez ez, baina aurten tentazio hori badut. Eta abuztuan Mont Blanceko 100 kilometrokoa. Iaz ez nuen bukatu, presioagatik-edo, eta aurten bukatu nahi nuke, ez nuke nahi datorren urterako arantza horrekin geratzea. Eta Munduko txapelketara joan naizen edo ez, hori ikusteko dago oraindik.

Zegama
Maratoiko dortsalak

DORTSALAK

1. Kilian Jornet Måndalen (NOR)
2.Thibaut Baronian Besancon (FRA)
3. Alejandro Forcades Palma (H. KAT)
4.Oriol Cardona Banyoles (H.KAT)
5.Manuel Merillas La Cueta (ESP)
6.Ander Iñarra Lezo (EH)
7.E. Hernandez S. F Guixols (H.KAT)
8. Flo Reichert Tegernsee (ALE)
9. Rémi Bonnet Charmey (SUI)
10. Aritz Egea Ezkio (EH)
11. Zaid Ait Malek Cartagena (ESP)
12. Frédéric Tranchand Chuyer (FRA)
13. Nadir Maguet Torgnon (IT)
14. Jan Margarit Matadepera (H.KAT)
15. Ruy Ueda Saitama (JAP)
16.Ben Kimtai Iten (KEN)
17. F. Puppi Appiano Gentile (IT)
18. Johann Baujard Servoz (FRA)
19. Roberto Delorenzi Sigirino (SUI)
20. Antonio Martinez Onil (H.KAT)
21. Oihana Kortazar Mutriku (EH)
22. O. Azkorbebeitia Abadiño (EH)
23. Maude Mathys Ollon (SUI)
24.Nienke Brinkman Zürich (SUI)
25. Emelie Forsberg Måndalen (NOR)
26. Ida Nilsson Kalmar (SUE)
27. C. Dauwalter Leadville (AEB)
28. Sara Alonso Donostia (EH)
29. Meg Mackenzie Les Houches (FRA)
30. T. Kwamboka Kiambogo (KEN)
31. V. Shikanova Krasnoyarsk (RUS)
32. Lucille Germain Mery (FRA)
33. Karina Carsolio Valle Bravo (MEX)
34. Caitlin Fielder Girona (H.KAT)
35. Núria Gil Clapera Reus (H.KAT)
36. Henriette Albon Isfjorden (NOR)
37. Sonia Amat Oviedo (ESP)
38. Johanna Åström Matfors (SUE)
39. Uxua Barandiaran Zegama (EH)
40. Merche Carbonell Gandia (H.KAT)
41. Fabiola Conti Cerro Maggiore (IT)
42. M. Mª Cuadrado Guadalajara (ESP)
43. B. de Moragas Bartzelona (H.KAT)
44. Marta Diaz Gijon (ESP)
45. Lina El Kott Östersund (SUE)
46. Sanna El Kott Östersund (SUE)
47. Anna-Stiina Erkkilä Espoo (FIN)
48. Rosario Espinosa Cabrerizos (ESP)
49. Esther Eustache Neuchâtel (SUI)
50. Candice Fertin Chamonix (FRA)
51. Julia Font Fondeguilla (H.KAT)
52. Uxue Fraile Leranotz (EH)
53. Zuriñe Frutos Artziniega (EH)
54. I. Fuertes C del Valles (H.KAT)
55. Aiara Garaialde Segura(EH)
56. Edurne Gil Burlata (EH)
57. Maialen Gurrutxaga Andoain (EH)
58. Noelia Herrera Sabadell (H.KAT)
59. Uxoa Irigoien Getaria (EH)
60. Ainhoa Jauregi Urnieta (EH)
61. Karoline Holsen Oslo (NOR)
62. Theres Leboeuf Aigle (SUI)
63. Paloma Lobera S. F Guixols (H.KAT)
64. Sylvia Nordskar Oslo (NOR)
65. Julia Pérez Huesca (ESP)
66. Iris Pessey Le G-Bornand (FRA)
67. Patricia Pineda P. de Córdoba (ESP)
68. Sonia Regueiro Mendiola (EH)
69. M. Alexandra Rocha Luzim (PORT)
70. M. Luisa Ruiz Bartzelona (H. KAT)
71. Grace Staberg Silverthorne (AEB)
72. Dom. Stelmach Warszawa (POL)
73. Rachel Tomajczyk Williams (AEB)
74. Paulina Tracz Rzeszów(POL)
75. Jorge Maravilla Annecy (FRA)
76. Sarah Ugarte Gipuzkoa (EH)
77. Marcela Vasinova Salzburg (AUS)
78. M.Witowska Zakopane (POL)
79. Unai Atxa Zegama (EH)
80. Aitor Adrian Getaria (EH)
81. Michaud Adrien Draillant (FRA)
82. Anartz Agirre Elgeta (EH)
83. Koldo Agirre Beasain (EH)
84. Urko Agirre Zegama (EH)
85. Iban Agirrezabala Berastegi (EH)
86. Daniel Aguirre Sant Celoni (H.KAT)
87. Agustin Agirre Tolosa (EH)
88. Ekaitz Agirre Donostia (EH)
89. Gurutz Agirre Orio (EH)
90. Jordi Agusti S. Sadurni (H.KAT)
91 Hassan Ait Chaou Villabona (EH)
92. Alberto Alarcon Leganes (ESP)
93. Eñaut Alberdi Zegama (EH)
94. Hodei Alkorta Aia (EH)
95. Siratz Aldanondo Gipuzkoa (EH)
96. Joseba Aldasoro Errenteria (EH)
97.Gregor Aldea Emperador (H.KAT)
98. N. Alomar Cas Catala nou (H.KAT)
99. Jesus Alonso Madrid (ESP)
100. Asier Alonso Oñati (EH)
101. Sergio Alonso Leon(ESP)
102. Alfonso Alonso Ourense (ESP)
103. Iker Alvarez Barakaldo (EH)
104. Nelson Amaral Porto (PORT)
105. **J. Amunarriz Hondarribia (EH)**
106. Bittor Andres Orio (EH)
107. Manuel Anguita Padul (ESP)
108. Zigor Aragoi Azkoitia (EH)
109. Mikel Aramendi Ibarra (EH)
110. C. Araña V. de San Mateo (ESP)
111. Fran Araña Arbizu (EH)
112. I. Arantzamendi Ondarroa (EH)
113. Aitor Arbulu Zeanuri (EH)
114. Markel Arbulu Donostia (EH)
115. F. Arca Caldas de Reis (ESP)
116. O. Ariznabarreta Durango (EH)
117. Gorka Arranz Arrigorriaga (EH)
118. Iker Arrien Gernika (EH)
119. Kosme Arrieta Mutriku (EH)
120. D. Arroyo S.Cristina d'Aro (H.KAT)
121. Ekaitz Artetxe Ondarroa (EH)
122. Jon Artetxe Ondarroa (EH)
123. Albert Arumí Torello (H.KAT)
124. Shahid Ashraf Bartzelona (H.KAT)
125. E. Asurabarrena Zumarraga (EH)
126. Ruben Atienza Siguenza (ESP)
127. Iñigo Atxa Zegama (EH)
128. M. Auf der Heide Innsbruck (AUS)
129. Asier Aiertza Tolosa (EH)
130. Cesar Azorin Chiva (H.KAT)
131. Eneko Azurmendi Eibar (EH)
132. Xabier Azurmendi Zegama (EH)
133. Iñigo Azurmendi Donostia (EH)
134. Mikel Azurmendi Segura (EH)
135. Jon Azurmendi Zegama (EH)
136. J. Baget S. M. de centelles (H.KAT)
137. Zorion Barandiaran Zegama (EH)
138. J .Barau S. B. Llobregat (H.KAT)
139. F.Barceló S. C. del Vallès (H.KAT)
140. J. Barquin Villasana de Mena (ESP)
141. C. Barret Bourgs sur Colagne (FRA)
142. Ibon Basterretxea Bilbo (EH)
143. Ibai Beloki Zaldibia (EH)
144. F. J Belzunce Z. Nagusia (EH)
145. Mikel Berasain Atarrabia (EH)
146. Martxel Bereau Oiartzun (EH)
147. Iñigo Bilbao Gernika Lumo (EH)
148. S. Bonikowsky Greenville (AEB)
149. Marten Bostroem Lidingo (SUE)
150. J. Bricollé Sant Sadurni (H.KAT)
151. P.Buchs Les Hauts-Geneveys (SUI)
152. Noel Burgos Jaca (ESP)
153. Javier Cabanas Gorraiz (EH)
154. G. Cabrera P. Lluçanès (H.KAT)
155. Pedro Cáceres Lorca (ESP)
156. Roberto Cacheiro Sada (ESP)
157. Luis Alberto Camba Aviles (ESP)
158. A C. Campos Valentzia (H.KAT)
159. Ander Cangas Mendiola (EH)
160 Germano Cardoso Oporto (PORT)
161. Ryan Carr Glenorchy (ZB)
162. O. Carrasco S.C.Farners (H.KAT)
163. David Carrasco Donostia (EH)
164. A. Casas Sanfuentes (EH)
165. D. Caselles Jesus pobre (H.KAT)
166. A. Castellvi Sant Sadurni (H.KAT)
167. D. Castillo Sant Ramon (H.KAT)
168. Sergio Cazcarro Biescas (ESP)
169. Francisco Ceron Vila-real (H.KAT)
170. C. Chamorro P. de Cordoba (ESP)
171. R. Cherta Alcalà de Xivert (H.KAT)
172. Karim Chouaib Xerta (H.KAT)
173. Cipri Cipres Boltaña (ESP)
174. E. Clausell Almazora (H.KAT)
175. Iñaki Cobo Galdakao (EH)
176. Zoel Codola Girona (H.KAT)
177. E. Collell C. de Montbui (H.KAT)
178. Gerard Comellas Navàs (H.KAT)
179. Ioritz Conde Elgoibar (EH)
180. Josep Corral Sentmenat (H.KAT)
181. Sergi Cots Manresa (H.KAT)
182. Raul Criado Jaca (ESP)
183. Miquel Cruz Figueres (H.KAT)
184. Unai Damian Irura (EH)
185. J. L. De Juan L. de Mena (ESP)
186. Igor De la Fuente Donostia (EH)
187. Gorka De la Horra Elgoibar (EH)
188. Maxi De la iglesia Noia (ESP)
189. J. Luis De la Mata Lasarte (EH)
190. David De la Varga Leon (ESP)
191. V. Del Aguila Porrera (H.KAT)
192. F.Deola S. J. de Vilatorrada (H.KAT)
193. S. Desimone Tres Cantos (ESP)
194. Erlantz Diaz Santurtzi (EH)
195. Jose Carlos Diaz Gilet (H.KAT)
196. Diego Diaz Lebeña (ESP)
197. Martin Diez Segura (EH)
198. Aitor Dionisio Zumarraga (EH)
199. Xavier Dols S.S.d'Anoia (H.KAT)
200. J. Domènech Torrelavit (H.KAT)
201. Javier Dominguez Gasteiz (EH)
202. Julen Dorronsoro Zaldibia (EH)
203. Andrew Douglas Edinburgh (ESK)
204. Aitor Duran Araia (EH)
205. Jokin Egurbide Zarautz (EH)
206.Elhousine Elazzaoui Bedano (SUI)
207. Daniel Elcinto Bilbo (EH)
208. Ugaitz Elias Irun (EH)
209. Andoni Elosua Zestoa (EH)
210. Lucien Epiney Zinal (SUI)
211. Joxe Mari Errasti Orio (EH)
212. Oriol Escala S.S.d'Anoia (H.KAT)
213. Javier Escobar Albacete (ESP)
214.Oier Escudero Andoain (EH)
215. Joseba Eskudero Idiazabal (EH)
216. J.M. Espada Vall de Uxo (H.KAT)
217. I. Espallargas Tarragona (H.KAT)
218.Antonio Estepa Badajos (ESP)
219. I. Etxebarria Amorebieta (EH)
220. Josu Etxeberria Zerain (EH)
221. Ander Etxeberria Beasain (EH)
222. Oier Etxeberria Azpeitia (EH)
223. Unai Ezeiza Urnieta (EH)
224. Halfdan-Emil Faeroe Oslo (NOR)
225. Arnau Fargas Falset (H.KAT)
226. Anthony Felber Poisy (FRA)
227. Pedro Fernandes Belverde (PORT)
228. J. Fernandez Hondarribia (EH)
229. B. Fernández Torrelavega (ESP)
230. Marcos Fernandez Jaca (ESP)
231. G. Fernanadez Piedrabuena (ESP)
232. Pedro Fernandez Moratalla (ESP)
233. Javier Fernnadez Luintra (ESP)
234. Miguel Ferrer Logroño (ESP)
235. Sergio Fonfria Naquera (H.KAT)
236. Vicente Fort Valentzia (H.KAT)
237. D. Franco Mata del Paramo (ESP)
238. Jorge Frias Logroño (ESP)
239. Javier Fuentes Donostia (EH)
240. Ioritz Fuentes Getaria (EH)
241. Mikel Ganzarain Zegama (EH)
242. B. Garat Laguinge restoue (FRA)
243. Xabier Garate Zarautz (EH)
244. Alberto Garcia Berriz (EH)
245. Carlos Garcia Irun (EH)
246. Esteban Garcia Arucas (ESP)
247. Juan Garcia Atarfe (ESP)
248. C. Garcia Rivas Vaciamadrid (ESP)
249. Paco Garcia Bartzelona (H.KAT)
250. Julen Garmendia Donostia (EH)
251. Gorka Gaviña Gasteiz (EH)
252. Gianluca Ghiano Pinerolo (IT)
253. Mattia Gianola Premana (IT)
254. Jokin Gijarro Zumaia (EH)
255. J. Gil Carrión de Calatrava (ESP)
256. Juan Gil Osorno la Mayor (ESP)
257. Aritz Goikoechea Donostia (EH)
258. Mikel Goikoetxea Mutriku (EH)
259. Javier Goitia Gernika (EH)
260. Andres Gomez Colindres (ESP)
261. Imanol Goñi Natxitua-Ea (EH)
262. Iosu Goñi Amezketa (EH)

AURTEN 510 LASTERKARI ARIKO DIRA MARATOIAN

Zegama-Aizkorri mendi maratoian 510 lagunek parte hartuko dute aurten: 453 gizonezkok eta 57 emakumezkok. Parte hartuko dutenen artean Euskal Herriko 209 korrikalari daude, eta horietatik 45 dira goierritarrak, tartean bi emakumezko.

Kilian Jornet, Sancti Spiritun gora, 2019an. Hamargarrenez irabaz dezake maratoia. S. COLOME

Zegama
Maratoiko dortsalak

263. Angel Gonzalez Gijon (ESP)
264. Luis Gonzalez Oviedo (ESP)
265. J.A. Gonzalez Aruca (Kan. Uhar.)
266. Simon Gosselin S.G. Les Bains (FR)
267. Javier Granell Albuixeck (H. KAT)
268. Arnau Grifoll Villalleons (H. KAT)
269. Mauri Grigelmo Lleida (H. KAT)
270. Iñigo Gurrutxaga Donostia (EH)
271. Julio Gutierrez Cambrils (H. KAT)
272. F.J. Gutierrez Miengo (ESP)
273. Maxime Heins Segus (FRA)
274. X. Hernan Seu d'Urgell (H. KAT)
275. A. Hernandez San Felipe (MEX)
276. D. Hernandez Itagui (KOL.)
277. J. M. Hernando Armentia (EH)
278. Carlos Hernando Donostia (EH)
279. Fr. Herrero Alpuente (H. KAT)
280. Pedro Herrero Cabrerizos (ESP)
281. David Hidalgo Eibar (EH)
282. Juan Ibañez S. V. Barquera (ESP)
283. Eñaitz Ibarburu Lasarte (EH)
284. Aitor Idigoras Gasteiz (EH)
285. Aaron Illes Catonsville (AEB)
286. Alf Iñiguez Montevideo (URU)
287. Jokin Intxausti Zerain (EH)
288. Imanol Inza Zumarraga (EH)
289. Dani Iparragirre Arantza (EH)
290. Joseba Iraola Ibarra (EH)
291. Igor Irastorza Beasain (EH)
292. Gotzon Iruretagoiena Aia (EH)
293. Andoni Iturbe Oñati (EH)
294. Ekain Iurrebaso Zumarraga (EH)
295. Pablo Ivelic Vitacura (TXILE)
296. Meltxor Iza Irun S. M(EH)
297. Iker Iztueta Segura (EH)
298. Dani Javaloyas Palma (H. KAt)
299. Mayen Sebastien Larresoro (EH)
300. J. Jimenez Cervera del Rio (ESP)
301. Beñat Katarain Zegama (EH)
302. Dakota Jones Bozeman (AEB)
303. I. Junyent S.M. de Tous (H. KAT)
304. Karin Juanbeltz Bilbo (EH)
305. Michael Kabicher S. Lorenz (AUS)
306. Max King Bend (AEB)
307. Matthew Kiptanui Iten (KEN)
308. And. Kjaerevik Varaldsoy (NOR)
309. Aritz Kortabarria Arrasate (EH)
310. Marcin Kubika Bielsko (POL)
311. Iker Ladron Geb. Ordoñana (EH)
312. Joseba Lafuente Ezkirotz (EH)
313. Iñigo Larrañaga Ondarroa (EH)
314. Imanol Larrañaga Azkoitia (EH)
315. J.F. Larrazabal Okondo (EH)
316. Asier Larruzea Gueñes (EH)
317. Iñaki Lasa Donostia (EH)
318. Xabier Lasaga Lezo (EH)
319. Mikel Legarreta Urnieta (EH)
320. Asier Leiza Arbizu (EH)
321. Andoni Lekuona Alegia (EH)
322. Xabier Lete Oñati (EH)
323. Ignacio Javier Lillo Cuenca (ESP)
324. David Llado Bartzelona (H. KAT)
325. Jon Lonbide Legazpi (EH)
326. Xabier Lopetegi Donostia (EH)
327. Goar Lopetegi Ibarra (EH)
328. Helio Lopez Blanes (H. KAT)
329. Iñaki Lopez Gasteiz (EH)
330. Xavi Lopez Palau Solita (H. KAT)
331. Alberto Lopez Casa de Uceda (ESP)
332. Juan Pablo Lopez Lugo (GAL)
333. Sito Luis Selva (H. KAT)
334. Hodei Lujanbio Goizueta (EH)
335. Anton. Luzon Cogollos Vega (ESP)
336. Albert Macias Roca Valles (H. KAT)
337. Ibai Madina Berrobi (EH)
338. Alejandro Maganto Escorial (ESP)
339. M. Magraner Almussafes (H. KAT)
340. Jon Maiztegi Idiazabal (EH)
341. David Malagon Donostia (EH)
342. Petro Mamu Asmara (ERIT.)
343. Igon Manzisidor Deba (EH)
344. Xavi March Granollers (H. KAT)
345. Ritxar Marcos Lasarte (EH)
346. Enric Marques S. Q.Valles (H. KAT)
347. Andres Marti Gandia (H. KAT)
348. Marc Marti Sant Boi (H. KAT)
349. Nicolas Martin Cornillon (FRA)
350. David Martin Santurtzi (EH)
351. Aritz Martin Arratzu (EH)
352. Iker Martin Beasain (EH)
353. David Martinez Manresa (H. KAT)
354. Julen Martinez Barrundia (EH)
355. Alvaro Martinez Algeciras (ESP)
356. Isma Martinez Girona (H. KAT)
357. J. A. Martinez Castellet (H. KAT)
358. Agus Martinez Errenteria (EH)
359. Ivan Martinez Almazora (H. KAT)
360. J. J. Grau S. S. D'Anoia (H. KAT)
361. Faustino Menendez Oviedo (ESP)
362. Ramon Meneses Santander (ESP)
363. Kepa Mercader Arrasate (EH)
364. Guillermo Mesa Orotava (ESP)
365. Julien Michelon Espinasses (FRA)
366. Victor Mier Bartzelona (H. KAT)
367. Jon Millan Gueñes (EH)
368. Martxi Miraz Arrigorriaga (EH)
369. Yann Mondot Ferrieres (FRA)
370. Robert Monros Avinyo (H. KAT)
371. J.C. Montaner Solsona (H. KAT)
372. Manel Montoliu V. Geltru (H. KAT)
373. Carlos Moran Zegama (EH)
374. Josep Moreno Vico (H. KAT)
375. Eric Moya S.J.Abadesses (H. KAT)
376. Xabier Mujika Alkiza (EH)
377. Aritz Munarriz Etx. Aranatz (EH)
378. Raul Murgia Araia (EH)
379. Reuben Narry Iten (KEN)
380. Geofrey Ndungu Kiambogo (KEN)
381. D.Henry Nilsen Loddefjord (NOR)
382. Acilio Noro Melrical (POR)
383. David Norris Anchorage (AEB)
384. Antonio Nunes Lisboa (POR)
385. Josu Odriozola Tolosa (EH)
386. Ivan Ojeda Colmenar Viejo (ESP)
387. Julen Olaizola Ermua (EH)
388. Igor Olalde Aretxabaleta (EH)
389. Iñaki Olano Altzo (EH)
390. Aritz Olaziregi Zegama (EH)
391. Francesc Olle S.C. Cervera (H. KAT)
392. Julen Ollokiegi Lasarte (EH)
393. Francisco Ondoño Cehegin (ESP)
394. Ibon Oñederra Deba (EH)
395. Gaizka Ormazabal Zegama (EH)
396. E. Oronoz Bartzelona (H. KAT)
397. David Oroz Urdiain (EH)
398. J.Carles Orquin Xixona (H. KAT)
399. Raul Ortiz Villan. Rosario (ESP)
400. Bernat Ortiz Bartzelona (H. KAT)
401. Daniel Osanz Zaragoza (ESP)
402. Igor Otero Tolosa (EH)
403. Iñigo Pardo Martzilla (EH)
404. Ezequeil Pauluzak Castelar (ARG)
405. Roberto Perez Ourense (GAL)
406. Pau Perez Lloret de Mar (H. KAT)
407. Oier Perez Urretxu (EH)
408. Jose Luis Perez Zegama (EH)
409. Natan Perez Vegas de Genil (ESP)
410. Santi Perez Matadepera (H. KAT)
411. Javier Perez Xativa (H. KAT)
412. Guillermo Pinillos Zegama (EH)
413. Jordi Pinyol Vil. Geltru (H. KAT)
414. Jaroslav Pisek Borsov (TXEK)
415. Robert Pkemboi Iten (KEN)
416. Sebastien Poesy S. Jeannet (FRA)
417. Mario Poletti Fiorano Serio (ITA)
418. Roc Pont Bartzelona (H. KAT)
419. Ramon Pont Escaldes (H. KAT)
420. Xabier Prieto Ordizia (EH)
421. Diego Puente Cas. Urdiales (ESP)
422. Felipe Ramirez Villena (H. KAT)
423. Carlos Ramirez Navarcles (H. KAT)
424. Alvaro Ramos Navasfrias (ESP)
425. Ismail Razga Sestao (EH)
426. Pol Makuri Igualada (H. KAT)
427. Jordi Riera Olot (H. KAT)
428. M. Rifaterra Bartzelona (H. KAT)
429. David Rioja Baños Rio Tobia (ESP)
430. Lluis Rius S.Sad. D'Anoia (H. KAT)
431. Jose Javier Rivas Hendaia (EH)
432. Odilo Rivela Segura (EH)
433. Pedro Rocha Porto (POR)
434. Sergi Rodriguez Cervera (H. KAT)
435. Jorge Rodriguez V. Geltru (H. KAT)
436. Pere Rodriguez V. Arcs (H. KAT)
437. Jordi Roy S. Pere Torello (H. KAT)
438. R. Ruiz de Apodaka Gasteiz (EH)
439. Marc. Rzeszotko Zakopame (POL)
440. J.M. Sabando Miranda Ebro (ESP)
441. Jose Ramon Sainz Bilbo (EH)
442. Robert Saiz Granollers (H. KAT)
443. J. Antonio Salgado Altsasu (EH)
444. Ger. Salvador Puigdalber (H. KAT)
445. Imanol Salvador Donostia (EH)
446. Hodei Samaniego Sestao (EH)
447. Aitor San Sebastian Zizurkil (EH)
448. David Sanchez Madril (ESP)
449. J.M. Sanchez Requena (H. KAT)
450. Oscar Sanchis Alcoi (H. KAT)
451. Alex Sanmartin Quintelas (GAL)
452. David Santacreu Benissa (H. KAT)
453. Alain Santamaria Ezkarai (ESP)
454. Fernando Santos Nogueira (POR)
455. Jordi Sanz S. C. Llobregar (H. KAT)
456. Franc. Sanz S.C. Farners (H. KAT)
457. Iñaki Sarasua Asteasu (EH)
458. Jose Saura Huesca (ESP)
459. Esteve Sebastian Calella (H. KAT)
460. Niñi Segovia Puigcerda (H.KAT)
461. Enrique Segura Alacant (H. KAT)
462. M. Senperena Abaltzisketa (EH)
463. Xavier Sens Girona (H. KAT)
464. Carlos Serna Santurtzi (EH)
465. Sergio Serrano Idiazabal (EH)
466. Ander Serrano Idiazabal (EH)
467. Iñaki Serrano Eibar (EH)
468. Andreu Simon Collbato (H. KAT)
469. David Solana Talavera (ESP)
470. Felicisimo Solanas Santurtzi (EH)
471. J.J. Somohano A. de Cabrales (ESP)
472. Patrick Stangbye Oslo (NOR)
473. Stefan Lustenberger Berna (SUI)
474. David Suarez Pravia (ESP)
475. Ekhi Sukia Ataun (EH)
476. Armando Teixeira Maia (POR)
477. Alex Teixeira Donostia (EH)
478. Luis Terol Xativa (H. KAT)
479. Darren Thomas Reno (AEB)
480. Borja Tomas Sopela (EH)
481. David Torres Bartzelona (H. KAT)
482. Juanjo Torrenteras Azkoitia (EH)
483. Imanol Ugartemendia Irun (EH)
484. Iñigo Uriarte Bilbo (EH)
485. I. Uribe-Etxeberria Beasain (EH)
486. Koldo Urrestarazu Lazkao (EH)
487. Ibon Urrutibeaskoa Miranda (ESP)
488. Jon Urteaga Idiazabal (EH)
489. Jon Urzelai Oñati (EH)
490. Jose Valero Guajar (ESP)
491. Joel Valldosera V. Geltru (H. KAT)
492. Kepa Vallejo Artomaña (EH)
493. Ruben Varela Dulantzi (EH)
494. Roberto Vargas San Joaquín (CR)
495. Toni Vidal Gurb (H. KAT)
496. Andoni Vigiola Algorta (EH)
497. Javi Viguera Gasteiz (EH)
498. Pablo Villalobos Madril (ESP)
499. Stephan Wenk Zurich (SUI)
500. Javier Zaldua Bartzelona (H. KAT)
501. Pau Zamora Bartzelona (H. KAT)
502. Marcel Zamora Banyoles (H. KAT)
503. Mikel Zapirain Zarautz (EH)
504. Xabier Zarranz Irunberri (EH)
505. Gorka Zubeldia Alegia (EH)
506. Jon Zubillaga Berastegi (EH)
507. Borja Zubizarreta Azkoitia (EH)
508. Unai Zumardi Gasteiz (EH)
509. Aitor Zunzunegi Legorreta (EH)
510. Fer. Zurita Bartzelona (H. KAT)

Aizkorri Zegama maratoia
Eduki guztiak QR-a eskaneatuz
goierri.hitza.eus

Zegama
Kilometro Bertikala

Oriol Cardona 2019ko edizioko irabazlea izango da bertikaleko faboritoetako bat. SERGI COLOME / SALOMON

Kilometro bertikala, motza bezain gogorra

Izaera berezia eta kirol proba estimatua bihurtzeko bidean sendotzen ari da Zegama-Aizkorriko Kilometro Bertikala • Espezialista onenak lehiatuko dira, etxekoetatik hasita

–ARKAITZ APALATEGI

Hiru-bat kilometroko distantzian, mila metroko altuera igotzea. Horixe da Zegama-Aizkorriko Kilometro Bertikalaren berezitasuna. Proba azkarra da, baina dena eman beharrekoa; «leherkorra» korrikalari askoren iritziz. Zegamako plazatik abiatuta, guztira 5,2 kilometroko ibilbidea egiten dute, baina azken 3 kilometroak dira erlojupekoak, Arriaunditik (505 metro) Irauleko gainera (1.520 m.) iritsi arte. Denera 1.015 metroko desnibela du, batez besteko %33ko maldarekin. Pandemia garaian ibilbidean izandako luizi bat tarteko, aurten ibilbidea moldatu behar izan dute, nahiz eta datuak, beti bezain beldurgarriak diren.

IBAN SAN JUAN
Korrikalaria (Zegama)

«Lasterketa eta giroa bizi nahi ditut, eta ahal bada, aurreko denbora hobetu»

Zegamarra izanda, gertutik ezagutzen du proba Iban San Juanek. Maratoia bi aldiz egindakoa da, baina pandemia aurreko azken bi edizioetan bertikalean atera zen, eta aurten ere hala egingo du. «Proba motzagoa baina esplosiboagoa da, dena eman behar duzu». Bi urteko etenaren ondoren, gustura hartu du lasterketen itzulera, «motibazio bat» delako. «Errutina batera ohitzen zara, ia asteburuero lasterketaren bat izatera, eta faltan botatzen nuen».

Herrikoa izanda, dortsala izateko aukera du eta «lasterketa eta giroa» bizitzeagatik eman zuen izena. Baita maratoiaren aldean, «entrenamendu gutxiagorekin zerbait txukuna» egiteko aukera ematen duelako ere. Izan ere, duela gutxi aita izan da, eta ez du lehen adinako denborarik entrenatzeko. Azken aldian, gehiago aritu izan da asfalto gainean, serie motzagoak eginez. «Egia esanda oraindik ez dut ibilbidea egiteko aukerarik izan, baina probatu nahi nuke lasterketaren aurretik». Bere buruari ez dio helburu zehatzik jarri, giroarekin gozatu eta «ahal bada aurreko urteetako denbora hobetu» nahi luke. Hasieran bizi baina «indarrak neurtuz» ateratzen dela dio, eta bukaeran «hortzak estutu eta dena eman» behar dela. Eguraldiak sortzen dio kezka apur bat, azken asteetako tenperaturak ikusita, edozer tokatu baitaiteke lasterketako egunetan.



KILOMETRO BERTIKALA DATUTAN

Data: 2022-05-27, ostirala
Ordua: 16:00
Irteera neutralizatua: Zegamako plaza
Irteera kronometratua: Arrihaundi (505m)
Helmuga: Iraule (1.520m)
Desnibela: 1.015m
Distantzia: 3.000m
Partaidetza muga: 250

IGONE CAMPOS
Korrikalaria (Zumarraga)

«Proba etxean izateak alde on eta txarra ditu. Ea nola kudeatzen dugun»

Neguko eski denboraldia bukatu eta apenas hilabeteko epea izan du Igone Camposek udako lasterketetarako prestatzeko. Hala ere, Zegama-Aizkorriren itzulera «ilusioz» hartu du. «Pandemiaren kontuagatik urtebetez geldirik egon ziren lasterketa gehienak, baina Zegama berezia da, eta publikorik gabe ez litzateke berdina izango». Horregatik izan da etena luzeagoa proba honen kasuan.

Zegamako bertikala prestatzeaz gain, Txindokiko Kilometro Bertikalaren antolakuntzan ere ibili da Campos, eta bata eta bestearen artean, kokatzeko ere asti handirik ez duela izan dio. Ostiraleko probari begira, tenperaturak eragiten dio kezkarik handiena. «Niri tenperatura altuek kalte egiten didate. Proba etxean izateak ere, alde onak eta txarrak ditu, baina ea presio hori kudeatzen asmatzen dugun». Horrek eta egunean bertan duen gorputzaldiak erabakiko dute bere emaitza; hala ere, garbi du «helburua beti ahalik eta errendimendurik onena» lortzea dela.

ANARTZ ETXEBERRIA
Korrikalaria (Idiazabal)

«Urteotan ez gara geldirik egon, baina Zegamako giroa berezia da»

Kilometro bertikaletan esperientzia handiko korrikalaria da Anartz Etxeberria idiazabaldarra; Zegaman bertan ere, edizio ugaritan hartu du parte dagoeneko. Joan den asteburuan Txindokiko bertikala egitetik dator. «Azkenekoa duela 11 urte egin zen, eta aurten hala tokatu da». Hala ere, gogoz hartu du bertako lasterketen itzulera, nahiz eta pandemia garaian ere

Santa Maria, 8 ORDIZIA
Tel.: 943 88 12 11
ZABALE Belardenda
Gure zerbitzuak
- Akupuntura
- Pisua kontrolatzea; argi interakzioaren ebaluazioa
- Haurrentzako elikagaiak
- Sendabelarrak
- Elikagai biologikoak, glutenik gabeko elikagaiak eta kosmetika naturala
- Kirolarientzako produktuak

Jarrai gaitzazu: Facebook/zabale belardenda
(Informazioa, eskaintzak...)
zabale@ordizian.eus

urrate
BERRI ERAIKUNTZAK S.L.
Nafarroa kalea 10, Legazpi
Tel.: 943 73 05 51
urrateberri@urrate.eus
Etxebizitzak salgai LIZARTZAn

ARANDIA GARAJEA
MULTIMARKA
ESEKIDURAK
PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK
POTENTZIA TXIPAK
www.arandiagarajea.com
N-1, z/g OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

ez den erabat geldirik egon. «Espainia aldean-eta ibili naiz, Kilometro Bertikalen Txapelketan, eta Katalunian ere bai, probaren batean. Horiek ez dira gelditu; hemen gehiago kosta zaie lasterketekin hastea».

Zegamako bertikala egin zuela hiru urte dira jada, eta denbora ez dela alferrik pasatzen dio, «batez ere gure adinean». Orduko denbora berdintzea kosta egingo zaiola uste du. «Adinarekin motelago zaude, eta beste era batera hartzen duzu lasterketa, orain ez gara hasieratik horren fuerte irteten». Zegama, hala ere, berezia da, lasterketaz gain egoten den giroa eta «festa egun bat» dela aipatu du Etxeberriak, eta beste lasterketa batzuetan aritu bada ere, berotasun hori gustura hartuko du aurten.

GARAZI GOLMAYO

Korrikalaria (Zaldibia)

«Askorik entrenatu gabe bada ere, dortsala izanda, joan beharreko proba da»

Lesio batetik atera berritan eta proba luzeagoetarako prestatzen ari dela harrapatu du Zegamako Bertikalak Garazi Golmayo zaldibiarra. Hala ere, Zegama «beti gogoarekin» hartzen dela dio. Bi urteko etenaren ondoren, «askorik entrenatu gabe bada ere, dortsala edukita Zegamara joan beharra» dagoela dio. Helburua beti izan ohi da aurreko urteetako denborak hobetzea, baina aurten nola iritsi den ikusita, ez dio bere buruari erronka berezirik jarri nahi.

Izan ere, distantzia luzeagoak ditu orain buruan zaldibiarrak. «Goierriko 2 Handiak probarako prestatzen ari naiz; duela sei urte hasi nintzen korrika, eta betidanik hori izan da nire ametsa; aurten horrela tokatu da, dena batera». Urteak daramatza «pixkanaka distantziak luzatzen eta traileta rako prestatzen». Aurten izango du probatzeko urtea.

DORTSALAK

1. Oriol Cardona Banyoles (H.KAT)
2. Garazi Abasolo Aretxabaleta (EH)
3. Janire Agirre Ataun (EH)
4. Ana Azpilicueta Madrid (ESP)
5. Nadia Bernaris Haedo (ARG)
6. Igone Campos Zumarraga (EH)
7. Merche Carbonell Gandia (H.KAT)
8. Sonia Castellà Barcelona (KAT)
9. Raquel Cordoba Abrera (KAT)
10. Eztizen Duque Portugalete (EH)
11. Sanna El Kott Östersund (SUE)
12. Lina El Kott Östersund (SUE)
13. Georgina Gabarró Òdena (H. KAT)
14. Itsasne Galfarsoro Gabiria (EH)
15. Andrea Garai Gasteiz (EH)
16. Garazi Golmayo Zaldibia (EH)
17. Laia Gonfaus Gironella (H. KAT)
18. Lorena Guinaldo Eibar (EH)
19. Naiara Irigoien Burlata (EH)
20. Onditz Iturbe Igorre (EH)
21. Moana L. Kehres Cervantes (ESP)
22. Silvia Lara C.Locubin (ESP)
23. Ainhoa Lendinez Elgoibar (EH)
24. Sonia Martín La Granja (ESP)
25. Cristina Martinez Tona (H. KAT)
26. Laia Montoya Manresa (H. KAT)
27. Begoña Mota Zaragoza (ESP)
28. Maria Ordoñez Iruñea (EH)
29. Aida Pintó Manresa (KAT)
30. Sonia Regueiro Mendiola (EH)
31. Claudia Sabata Berga (H. KAT)
32. Beatriz Sanchez Bustarviejo (ESP)
33. Grace Staberg Silverthorne (AEB)
34. Nuria Tarragó Manresa (H. KAT)
35. Laura Vidal Breña Alta (ESP)
36. Marina Zabala Lakuntza (EH)
37. Maite Zabaleta Aretxabaleta (EH)
38. Marije Zubizarreta Oñati (EH)
39. Inaxio Agara Bera (EH)
40. Alatz Agirre Arbizu (EH)
41. Gerard Ahicart Aviá (H. KAT)
42. Edu Alborch Alberic (H.KAT)
43. Alberto Alejandro Zaldibia (EH)
44. J.Antonio Algueta Hecho (ESP)
45. Gael Alvarez Castellbisbal (H. KAT)
46. Kevin Alves Beriain (EH)
47. Iñigo Alzola Arrasate (EH)
48. Victor Amatriain Zangotza (EH)
49. J. A. Aranburu Zumarraga (EH)
50. Imanol Arbelaitz Oiartzun (EH)
51. Victor Arrogante Cerceda (ESP)
52. Igor Arruti Urnieta (EH)
53. Josu Artola Astigarraga (EH)
54. Xabi Azpirotz Astitz (EH)
55. Albert Ballús Manlleu (H. KAT)
56. Lleïr Barcons Avià (H. KAT)
57. Gorka Betolaza Larrea (EH)
58. Mikel Beunza Alkotz (EH)
59. Jabi Beunza Eltso (EH)
60. Jordi Bolet B.Cerdanya (H. KAT)
61. J. Borralleras P.Lluçanes (H. KAT)
62. Txomin Bustindui Ondarru (EH)
63. Cristian Cabanillas S.Feliú (H. KAT)
64. Albert Cabra Piug-Reig (H. KAT)
65. Albert Camarasa Alcoletge (H. KAT)
66. Aran Capdevilla Aviá (H. KAT)
67. Nil Cardona Llívia (H. KAT)
68. Q. Carnicero El Masnou (H. KAT)
69. José Carrasco Mataró (H. KAT)
70. V. H. Carrillo Hospitalet (H. KAT)
71. Jan Castillo Bartzelona (H. KAT)
72. Sébastien Chassagne Bilbo (EH)
73. David Clavera Granollers (H. KAT)
74. Jose Cobo Golmes (H. KAT)
75. Pau Coll Vilajuïga (H. KAT)
76. Jose Luis Collado SP de Aras (ESP)
77. Eloi Comerma Tona (H. KAT)
78. Julio Corres Viana (EH)
79. Thomas Darrodes Bigorra (FRA)
80. Oliver de la Cruz Los Realejos (ESP)
81. Hernan de Lahitte Caba (ARG)
82. Alberto d. l. Heras Barakaldo (EH)
83. J.Antondio de Pablo Frontera (ESP)
84. Ismael Delgado Archidona (ESP)
85. Aratz Diaz de Rada Igorre (EH)
86. Diego Diaz Albacete (ESP)
87. Lucas Diez Fuenmayor (ESP)
88. Haritz Oiarzabal Tolosa (EH)

Igone Campos zumarragarra, 2018ko kilometro bertikalean. J. IÑIGO

89. Jonathan Etxeberria Barañain (EH)
90. Jexux Mari Errazu Azpeitia (EH)
91. Pello Esnaola Donostia (EH)
92. Ruben Espadas A Coruña (GAL)
93. Anartz Etxeberria Idiazabal (EH)
94. Fernando Etxezarreta Irun (EH)
95. Jon Feijoo Ondarroa (EH)
96. Oriol Feliu Avinyó (H. KAT)
97. Alberto Fernandez C.Urdiales (ESP)
98. Sergio A. Ferreira Valongo (POR)
99. Albert Ferrer P. de Morella (H. KAT)
100. Gerard Fiol Torelló (H. KAT)
101. J.Mari Gabilondo Ezkio (EH)
102. Raul García La Granja (ESP)
103. Iñigo Garcia Amurrio (EH)
104. Michel García Palencia (ESP)
105. Joseba Garcia Amurrio (EH)
106. Ander Garitagoitia Mallabia (EH)
107. Adria Gelonch Falset (H. KAT)
108. Nil Gelonch Falset (H. KAT)
109. Albert Giron El Morell (H. KAT)
110. Gonzalo Gomez Errenteria (EH)
111. L. Javier González Segovia (ESP)
112. M.Angel Granados Almeria (ESP)
113. Julen Guerra Beasain (EH)
114. Jorge Guirado Inca (H.KAT)
115. Eric Hannequin Lespiteau (FRA)
116. Carlos Hermosilla Basbastro (ESP)
117. V.G. Hernández Fuerteventura (ESP)
118. Borja Hernández La Orotava (ESP)
119. J. Miguel Hernando Armentia (EH)
120. Koldo Hualde Bidankoze (EH)
121. José Irurozqui Alcobendas (ESP)
122. Egoitz Izagirre Oiartzun (EH)
123. Jonatan Izquierdo Araia (EH)
124.C. Antonio Jimenez Araia (EH)
125. Eugenio Jimeno Iruñea (EH)
126. Andoni Jorajuria Senpere (EH)
127. A.Jorquera V. i la Geltrú (H. KAT)
128. Alberto Lamariano Azpeitia (EH)
129. Kepa Larrea Donostia (EH)
130. Ekaitz Larrion Irun (EH)
131. Iñigo Lasarte Lekunberri (EH)
132. Enar Lazcano P. Mallorca (H.KAT)
133. J.Manuel Leon Icod d.Vinos (ESP)
134. Jose Lizundia Eibar (EH)
135. Fabricio Lofeudo B. Aires (ARG)
136. Iñigo Lopez d. Rica Gorliz (EH)
137. Jose Luis Lopez Villarcayo (ESP)
138. Vincent Loustau Orion (FRA)
139. Eleder Lozano Elgeta (EH)
140. Beñat Madariaga Oñati (EH)
141. Iñaki Maiz Beasain (EH)
142. Gerard Marce Caimari (H.KAT)
143. K. Mariezkurrena Arrarats (EH)
144. Santi Marlès Claramunt (H. KAT)
145. Lander Martín Beorburu (EH)
146. Santiago Martín Terrassa (H. KAT)
147. L.Alfonso Martín Alcalá H. (ESP)
148. Jesus Martinez Legazpi (EH)
149. David Martinez Abrera (KAT)
150. Eric Martinez Benifacio (H.KAT)
151. David Martinez Garrucha (H.KAT)
152. Josep Mateu Les Useres (H.KAT)
153. J.Antoni Mayol Caimari (H.KAT)
154. Thomas Medevielle Palma (H.KAT)
155. Guillermo Mendez R.Mejia (ARG)
156. M.Mendez Montcada H. (KAT)
157. Jordi Mesas Bartzelona (H. KAT)
158. Salvador Millan Zumaia (EH)
159. Miguel Mirantes A Coruña (GAL)
160. Joseba Molinero Oñati (EH)
161. Pau Montané Tírvia (H. KAT)
162. Rafael Montes Rute (ESP)
163. Rafael Mosegui Ginestar (H. KAT)
164. J. Miguel Muñoz Puebla DF (ESP)
165. Raul Muñoz Oñati (EH)
166. Borja Murillo Zarautz (EH)
167. David Navarrete Manzanares (ESP)
168. Ïu Net SE de Palautordera (H. KAT)
169. Adria Noguera P.Lluçanes (H. KAT)
170. Hugo Nuñez V. de Odón (ESP)
171. Asier Oiarbide Idiazabal (EH)
172. Mariano Ontanon Madril (ESP)
173. Enrique Ordas Almussafes (H.KAT)
174. Miguel Pastor-Peris Zaragoza (ESP)
175. Rubén Pedreño Elx (H.KAT)
176. Emiliano Pereiro Caba (ARG)
177. J.Antonio Pérez Simancas (ESP)
178. Santiago Petrera B.Aires (ARG)
179. Xabi Prieto Donostia (EH)
180. Jorge Ramos Iruñea (EH)
181. A. Raymond Barcelona (H. KAT)
182. I. Regalado Esparreguera (H. KAT)
183. Jordi Reyes Arcavell (H. KAT)
184. David Rodrigo Cerceda (ESP)
185. Oscar Rodríguez Bescanó (H. KAT)
186. Raul Rubio Gernika (EH)
187. Ibon Ruiz de Azua Gasteiz (EH)
188. Pere Rullan La Molina (H. KAT)
189. Hodei Samaniego Sestao (EH)
190. Pablo Sánchez Redovan (H.KAT)
191. Inaxio Sanchez Gasteiz (EH)
192. Oscar Sanchis Alcoi (H.KAT)
193. Iban Sanjuan Zegama (EH)
194. E. Santamaria M.de Rei (H. KAT)
195. Pablo Santiago Monfero (GAL)
196. David Sanz Idiazabal (EH)
197. Carlos Sarrias Dosrius (H. KAT)
198. J.Luis Senent Cartagena (ESP)
199. Raul Serena Logroño (ESP)
200. Luis Serrazina Alcobaça (POR)
201. Xavi Simo Lleida (H. KAT)
202. Pablo Soler Sueca (H.KAT)
203. Carles Sunyer Sallent (KAT)
204. Manuel Tejero Archidona (ESP)
205. Jan Torrella Bagà (H. KAT)
206. Rubén Torres Ermua (EH)
207. Ander Torres Itziar (EH)
208. Ion Ubide Tolosa (EH)
209. Aitor Ugarte Aramaio (EH)
210. I. Uribeetxebarria Legazpi (EH)
211. Josu Urrestarazu Idiazabal (EH)
212. Mikel Urrutia Oñati (EH)
213. Henrik Vacun Viana (EH)
214. Pablo Velez Hernani (EH)
215. David Viloria Gasteiz (EH)
216. M. Vizcaíno SJ Abadesses (H. KAT)
217. Iker Zabala Beasain (EH)
218. Jokin Zabala Bedia (EH)
219. J.Manuel Zamora La Unión (ESP)
220. Alberto Zapatero Elda (H.KAT)
221. Jexux Zelaia Azpeitia (EH)
222. Oscar Zuazo V. Iregua (ESP)
223. Imanol Zubillaga Ibarra (EH)

ZEGAMAOKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

ORAIKI
OBRAK • ERREFORMAK
www.obrasoraiki.com
info@obrasoraiki.com
Oriamendi, 15 - BEASAIN
671 410 778 691 569 383

Zegama
Elkarrizketa

«Nire lasterketa egingo dut, nirean gozatuz eta sufrituz»

ONDITZ ITURBE MENDI LASTERKARIA

Krosak eta mendi lasterketak uztartzen ditu Onditz Iturbek (Igorre, 1991). Iaz hasi zen trailetan, eta aurten, aurreneko parte hartzean, Espainiako Kilometro Bertikala irabazi du. Gogotsu dago Zegamarako.

ZALDIBIA.ORG

–IÑAKI GURRUTXAGA

Lasterketa karga handiarekin dabil atleta eta mendi lasterkari arratiarra aurtengo denboraldian, baina horrek ez dio eragotzi emaitza bikainak lortzea. Garaipen zerrenda oparoa du 2022 honetan: Bizkaiko txapeldun krosean urtarrilean, martxoan UZ Traileko eta Espainiako Kilometro Bertikaleko irabazle, eta apirilean Jaengo Kilometro Bertikalean garaile. Sasoi onean dagoela dio, eta Zegamako Kilometro Bertikalean «dena ematera» joango dela adierazi du. Ez du Irauleko igoera ezagutzen. «Ez da kezkatzen nauen zerbait».

Zer moduzko gorputzaldirekin zatoz Zegamara?

Lasterketa guztietara bezala, dena ematera eta aurrera. Esperientzia bizi eta ahal den karrera onena egitera.

Aurreneko aldia duzu.?

Bai, hori da. Inoiz ez dut aukerarik izan egiteko, edo planteatu behintzat ez, eta aurtengoa izan da lehenengoa. Esperientzia berria izango da niretzat, eta espero dut zapore gozo batekin amaitzea.

Igoera ezagutzera etorri zara?

Ez, ez, eta ez dut uste joango naizenik. Lasterketa asko egiten ditut urtean zehar, eta ibilbide gehienak ere ez ditut ezagutzen, eta Zegamaren kasuan ere berdin. Ez da kezkatzen nauen zerbait.

Sasoi aldetik zer moduz? Eta denboraldiko karga aldetik?

Pixka bat gaixorik –maiatzaren 16koa da elkarrizketa–, eta espero dut errekuperatuko naizela ordurako, baina gainontzean sasoi onean nagoela uste dut.

Emaitzak aldetik behintzat urte bikaina daramazu. Tartean Kilometro Bertikaleko txapelketa irabazi duzu.

Lasterketa aldetik nahiko kargatuta. Ni mendiko federazioan (FEDME) eta atletismokoan (RCA) nago, eta pasatzen zaiguna da txapelketak bikoiztu egiten direla, banakakoa bikoiztu egiten da, taldekakoa ere bai... Orduan, azkenean, egutegia nahiko estu edukitzen dugu, eta egia da nahiko genukeena baino lasterketa karga handiagoa sartzen dugula. Bi taldetan eta bi federaziotan gaudenok konpromisoak dauzkagu alde batetik eta bestetik.

Aurreneko aldia zenuen gainera. Ez da lorpen makala.

Espainiako txapelketakoa izan zen bai nire lehenengo bertikala. Joan nintzen erreserba moduan txapelketa horretarako, baina Oihana Kortazar lesionatu zenez, tokia egin zidaten, zortea izan nuen eta ondo atera zen.

Eta orain Zegama, izen handiko beste proba bat.

Bai, nik eman dut parte hartzeko pausua. Espainiako taldekako txapelketa egin genuen, eta han hasi ginen berbetan, batzuk maratoia egingo zutela, besteek bertikala, esperientzia polita dela... Aukera eduki dut bertikalean izena emateko, eta Zegamako esperientzia beste ikuspegi batetik bizitzeko. Aurten egin ditut aurreneko aldiz bertikalak, eta gustua hartzen ari natzaie, eta parte hartzeko aukera edukita aurrera egitea erabaki dut.

Entrenatu-eta non egiten duzu, Arratia inguruan?

Jende askok pentsatzen du Gorbeia ingurua *matxakatuta* daukadala, baina ez, egunerokoan Zornotza inguruan ibiltzen naiz, etxeko mendietatik gertu. Asteburuetan bai, orduan aprobetxatzen dut beste leku eta mendi batzuetara joateko.

Ez dakarzu hortaz helburu jakinik.

> *«Esperientzia bizi eta ahal dudan karrera onena egitera noa Zegamara»*
>
> *«Bertikaleko ibilbidea ez dut ezagutzen, baina ez da kezkatzen nauen zerbait»*
>
> *«Nahiko urduria naiz, eta nirean zentratzen saiatuko naiz, besteei begira egon gabe»*

Ez, berez gozatzera noa, eta daukadana ematera, ez dut finkatu helbururik.

Izango dituzun balizko aurkariei begira ere ez zarela egoten ondoriozta daiteke orduan.

Normalean ez. Nahikoa urduria naiz, eta nirean zentratzen saiatzen naiz, besteei begira egon gabe. Hori ezin da aldatu. Joatekoak direnak joango dira, sasoi onean joango dira, eta nahiago dut ez pentsatu horretan. Nik nire lasterketa egingo dut, nirean gozatuz eta sufrituz.

Eguraldiak kezkatzen al zaitu?

Eguraldiari bai, horri begiratzen diot bai! Caceresen Espainiako txapeldun atera nintzen horretan ez daukat oroitzapen onik, eguraldi oso-oso txarra egin zuen, eta beheranzkoan, behin bertikala amaituta, asko sufritu nuen; hotz handia... Berozalea ere ez naiz. Lainotuta badago hobeto, baina hori bai, euririk gabe eta hotz handirik gabe.


TEILATUGAIN
Egurrezko egiturak
Baserri berritzeak
Teilatu-hodiak
Fatxadak
Teilatuko lanak eta Mantenimentua
Fatxada aireztatuak egiten ditugu SATE eta zeramikoarekin
obra osoak egiten ditugu
649 093 397
teilatugain@gmail.com
ORDIZIA

Mendi proben harra, gaztetatik

Zegamaren izen onak erakarrita, dozenaka gaztek parte hartzen dute Junior Trail proban • Mendi lasterketen mundua ezagutu eta «disfrutatzea» dute helburu gehienek

– ARKAITZ APALATEGI

Gero eta gazte gehiago hasten dira korrika inguruan dituzten mendi lasterketek animatuta. Eta Zegama-Aizkorri ere ez da salbuespena. Duela hamar bat urte hasi ziren gazteentzako proba antolatzen, eta urtez urte igotzen joan da parte-hartzaile kopurua. Aurten **XX** lagunek parte hartuko dute; erdiak baino gehiago euskaldunak dira, eta horietatik **X** goierritarrak. Zegama-Aizkorri bezalako mendi lasterketek erakarrita hasten dira gehienak, eta lehiaz harago, «disfrutatzera» doazela diote.

Junior Trail probako podiuma, 2019ko edizioan. IÑAKI GURRUTXAGA

Zegamarrentzat berezia

Pandemiak eragindako etena tarteko, korrikalari gehienek aurrenekoz parte hartuko dute junior trailean, 16-18 urteko adin tartea hartzen baitu. Hori da Mikel Goiburu eta Haitz Goia zegamarren kasua; biek ere aurreko edizioetan parte hartzeko asmoa zuten, baina aurten arte ez dute aukerarik izan. Gogotsu daude herriko lasterketaren parte sentitzeko. Goibururen ustez, «egun berezia» izango da, «txiki-txikitatik» ezagutu baitute Zegama-Aizkorri proba eta haren inguruan sortzen den giroa. «Berezia da niretzat eta baita zegamar guztiontzat ere. Herri txiki batentzat horrelako karrera bat izatea polita da». Goiak ere «beti ikusten eta laguntzen» aritu direla dio, eta aurten parte hartzeko «gogoz» daudela. Goiarentzat ere egun «berezia» izango da, lasterketaz gain, urtebetetze eguna duelako.

Elkarrekin entrenatu dute. Zegamarrak izanda, bertatik bertara dute ibilbidea, nahiz eta futbola eta ikasketak direla eta, nahi adina denbora izan ez duten. Helburu jakinik gabe aterako dira, «disfrutatzera» dio Goiburuk. «Gozatu egin nahi dugu herriarekin, giroarekin eta jendearekin, eta gero lasterketa ona ateratzen bada, hobe». Goiak ere asmo bera du, baina lagunaren aurretik gelditzea gustatuko litzaiokeela dio, barrez.

Giroak erakarrita

Bertakoak ez ezik, beste herri askotatik ere etortzen dira korrikalari gazteak. Izaro Larrañaga zumarragarra da horietako bat. Umetatik atletismoan ibilitakoa da, baina iaz hasi zen mendian korrika. Zegamak «izen bat» duela dio, eta helburu zehatzik ez dio jarri bere buruari, «proba egitera noa eta lehendabizikoa, bukatzea da». Horrelako probetan parte hartuz «esperientzia hartzen» joan nahi du.

Jokin Leunda ordiziarra ere atletismo mundutik dator. «Lehengusu bat ibiltzen zen lehenagotik eta harekin hasi nintzen mendira joaten». Axari Trailen parte hartutakoa da eta Tolosako T2T proba du jomugan. Zegamara «lehiatzeko asmotan» joango bada ere, badaki «jende ona» egoten dela eta zaila izango dela. «Disfrutatzera joango naiz, presiorik gabe eta ondo pasatzera».

Junior-traila 2022

FITXA TEKNIKOA

Eguna: 2022ko maiatzaren 29a.
Irteera-helmuga: Plaza.
Irteera ordua: 10:30.
Distantzia: 10,4 kilometro.
Gorako desnibela: 505 metro.
Beherako desnibela: 511 metro.
Gehieneko altuera: 735 metro.
Gutxieneko altuera: 296 metro.
Gehienezko kopurua: 100.

GARAIPEN ZERRENDA

	DENBORA
2012	
Adolfo Campillo	47:40
Marta Cester	1:13:03
2013	
Juan Jose Rodriguez	47:46
Olatz Unanue (Arama)	1:01:09
2014	
Abel Cuadrench	48:08
Leire Fernandez	52:27
2015	
Jan Margarit	45:08
Leire Fernandez	54:49
2016	
Daniel Osanz	46:30
Lide Urrestarazu (Ordizia)	55:27
2017	
Nikolas Molina	46:04
Ane Iturria	58:46
2018	
Nikolas Molina	44:59
Ane Iturria	1:00:22
2019	
Gontzal Murgoitio	45:52
Laia Gonfaus	57:50

DORTSALAK

1. Martina Gonfaus	Gironella (KAT)
2. June Angulo	**Muskiz (EH)**
3. Maria Butxaca	Berga (KAT)
4. Alluitz de Bilbao	**Gernika (EH)**
5. Berta Guitart i Barral	Bagá (KAT)
6. Elorri Harguindeguy	**Ereta (EH)**
7. Deva Insausti	Siero (ESP)
8. Izaro Larrañaga	**Zumarraga (EH)**
9. Jone Oar-Arteta	**Gernika (EH)**
10. Amaiur Velez	**Hernani (EH)**
11. Fabián Venero	Manzanares (ESP)
12. Haitz Goia	**Zegama (EH)**
13. Mikel Goiburu	**Zegama (EH)**
14. Mikel Abad	Calahorra (ESP)
15. Aaron Alarez	Castellbisbal (KAT)
16. Ibai Angulo	**Azpeitia (EH)**
17. Xabier Arrasate	**Berriatua (EH)**
18. Jon Arrieta	**Morga (EH)**
19. Asier Arrieta	**Mutriku (EH)**
20. Julen Bereziartua	**Alegia (EH)**
21. Alex Bergua	**Elgoibar (EH)**
22. Ethan Cabanillas	**Segura (EH)**
23. Aitor Climent	Alborache (H KAT)
24. Pablo Egizabal	**Elgeta (EH)**
25. Martin Egizabal	**Elgeta (EH)**
26. Miguel Fenoll	H.Manzanares (ESP)
27. Rubén Fernandez	Palencia (ESP)
28. Ibai Fernandez	C. Pisuerga (ESP)
29. Maren Goenaga	**Tolosa (EH)**
30. Aitor Guerra	**Bilbo (EH)**
31. Pau Guitart	Berga (KAT)
32. Ulises Gutierrez	**Bilbao (EH)**
33. Haritz Iriondo	**Elgoibar (EH)**
34. Mikel Iturrioz	**Tolosa (EH)**
35. Jokin Leunda	**Ordizia (EH)**
36. Oriol Llácer	Alcasser (H.KAT)
37. Adriá Lopez	Manresa (KAT)
38. Markel Maiza	**Irura (EH)**
39. Xabat Miner	**Aduna (EH)**
40. Jon Naldaiz	**Olaberria(EH)**
41. Ander Oiarbide	**Segura (EH)**
42. Alejandro Paños	Sabiñanigo (ESP)
43. Joel Rey	Ripollet (KAT)
44. Ricardo Santamaria	Ezkarai (ESP)
46. Manex Urkaregi	**Larraul (EH)**
47. Julen Urkizar	**Tolosa (EH)**
48. Unax Uzkudun	**Aizarnazabal (EH)**
49 .Quim Vilella	G.Berguedá (KAT)
50. Marcos Villamuera	C.Buelna (ESP)

LAULAGUN bearings
www.laulagun.com
Harizti Industrialdea 201-E
OLABERRIA
943 80 50 77

AUZOKI
KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOAK SL
Kol. Zenb. 599
Araba kalea, 1
ORDIZIA
auzoki@auzoki.eus
Tel.: 943 087 486
688 651 379

ARANTZAZU ARRANDEGIA
618 23 65 79
K. Nagusia, 20
IDIAZABAL
637 00 84 88
Juan XXIII., 12
BEASAIN

Tel. 943 80 16 80
Andraitz kalea, 3
ZEGAMA
OIARBIDE
URDAITEGIA HARATEGIA
Maratoiko egunean,
ogitartekoak eta edariak salgai

Aparkalekuak kudeatzen aritzen den boluntario sarea, Zegamako plazan. KERMAN GARRALDA ZUBIMENDI

Lasterketa mundu osoan da ezaguna pilatzen den zale uholdeagatik. Ibilgailu mordoa da hori, aldi berean. Boluntario talde bat arduratzen da aparkalekuak kudeatzeaz, herria ez dadin blokeatu.

Zegama, aparkaleku erraldoia

–K. GARRALDA ZUBIMENDI

Zegama-Aizkorri lasterketa bertako eta atzerriko korrikalari askoren proba kuttuna da, zaleek sortzen duten giroa bezalakorik ezin delako topatu beste inon. Milaka zaletu elkartzen dira bide bazterrean. Eta milaka auto ere bai. Zegama eta inguruko mendiak parking erraldoi bat bilakatzen dira asteburuan. 3.000 edo 4.000 ibilgailu elkartu daitezkeela esan du aparkalekuen kudeaketaz arduratzen den boluntario talde batek.

Hamar lagun inguru dira denera kudeaketaz arduratzen direnak. Batzuk herrigunean egiten dute lan; beste talde bat Aldaola eta Beunde inguruez arduratzen da, eta hirugarren batzuk, Otsaurten, herriguneko

Aparkalekuak

Antolatzaileek boluntarioen eta Ertzaintzako agenteek esandakoa eta seinaleak errespetatzeko eskatu dute, lanak errazteko.

BAIMENDUTAKO TOKIAK

Ikusleentzat. Goardiko industri poligonoa. Betetakoan, GI-2637 (Idiazabal-Segura) errepide bazterrean. Beunda. Aldaola.

Korrikalarientzat. Ugarte-Zelaia eta Olaberri auzoa. Eremuak markatuta egongo dira.

DEBEKATUTAKOAK

Ikusleentzat. Herrigunean ezingo da sartu. Maittegiko errotondatik aurrera ezingo da pasa. Mendi bideetan noranzkoak errespetatu.

Korrikalarientzat. Herrigunera sartzeko ezinbestekoa izango da txartela eskuartean izatea.

eta mendiko lotura lanak egiten. Ibai Aizpeolea, Unai Arakama, Asier Berasategi, Igor Elizegi, Jon Etxezarreta eta Ander Ormazabal dira beraietako batzuk. GOIERRIKO HITZArekin elkartu dira ezinbestekoa baina ezkutukoa den lan honen nondik norakoak argitara ateratzeko.

Etxezarreta aritzen da arduradun lanetan, nahiz eta kudeaketa horizontala dela zehaztu. Elizegik dio berak «fitxatu» zuela

500

BOLUNTARIO
Zegama-Aizkorriko hiru egunetan –ostiraleko kilometro bertikala, larunbateko dortsal banaketa, eta igandeko junior traila eta maratoia– zein aurreko aste eta egunetan –ibilbidea txukuntzen eta markatzen, mendira ura eramaten, anoa-guneetan, bidegurutzeetan, aparkalekuetan...– boluntario aritzen den lagun kopurua.

taldera, «laguntzeko», orain dela ia 20 urte, eta hala hasi zela. Arakama ere oroitu da fabore gisa eskatu ziotela, eta kuadrillan hasi zirela. Betiko lagunak dira Aizpeolea, Ormazabal eta hirurak. «Horrela errazago egiten da lan», aitortu du.

«Eta, hamaiketakoarekin», gehitu du Elizegik. Mokadu bat jateko tartea hartzen dute, garagardo eta ardo apur batekin. «Lanean aritzen gara, baina festa ere bada», zehaztu du. Merezi dute. 06:00ak aldera ekiten diote lanari, eta 15:00ak aldera amaitzen dute. «Urtero izaten da igandezaleren bat lasteketa hasita etortzen dena, berandu. Baina etorri behar duena garaiz ibiltzen da», azaldu du. Lasterketa Sancti Spiritutik lehenago igarotzen denez mendialdeko boluntarioak lehenago jaisten direla zehaztu du Aizpeoleak. Beraiek 13:00ak alderako herrian izaten dira.

Lasterketa ikusteko tarterik ez dute izaten, baina. Arakamak aitortu du beraiek azken korrikalariak helmugaratzen ikusteko aukera izaten dutela, «justu-justu». Herrigunekoek, ez ordea. Etorri direnak arazorik gabe joan daitezen eurei lan egitea tokatzen zaie. «Arratsaldean herria hutsik gelditzen da», nabarmendu dute. Barealdiaren aurretik, ordea, ekaitza izaten da.

Lanean, lasterketa aurretik
Ekaitza goiz hasten da, gainera. Lasterketa aurretik ere lana egitea egokitzen zaie. Bezperan seinalizazioa jartzen eta eremuak prestatzen aritzen dira, esaterako. Bizilagunei kotxeak euren garajeetan sartzeko ere eskatzen diete, toki gehiago izan dezaten. Azken urteetan, gainera, Ertzaintzarekin planifikazio lanak ere egiten dituzte, trafikoko agenteen laguntza izaten baitute maratoiaren egunean.

Esperientziari esker lanak geroz eta errazago egiten diztuztela azaldu dute. Denek daramatzate urteak, gehiago edo gutxiago izan arren. Halere, beti dagoenez zer hobetua, urtero aldaketaren bat izaten dela zehaztu dute. «Azken aldian karabanekin eta *camper* estiloko furgonetak izaten dugu zailtasun gehien. Ostegunerako etortzen dira lehendabizikoak, gu prest egon baino lehen, eta herria bete egiten dute», aipatu du Etxezarretak. Aurten, tamaina handiko ibilgailuen uholdea aurreikusita, ikusleen karabanek eta furgonetek ezingo dute herrigunean aparkatu. Industrialdean aparkatu beharko dute eta anezka autobusetan, mugitu.

Boluntarioek euren hitza errespetatzen dela sentitzen dute, baina pairatu izan dituzte une desatseginak eta sudur punrian zegoen, eta ezin zuen kotxea mugitu», oroitu du Etxezarretak. Autobusen eta anbulantzien joan etorria oztopatzen duten autoak ere behin baino gehiagotan izan dira. «Pilatzen diren ibilgailu guztiekin arazoak gutxi izaten dira», kendu dio garrantzia Arakamak. Gainera, antolatzaileek, lasterkariek eta horien senitartekoek aparkalekuetako boluntarioen lana estimatzen dutela sentitzen dute.

«Azken aldian karabanekin izaten ditugu arazo gehien. Herria betetzen dute»

Jon Etxezarreta
Boluntarioa

«Urtero izaten da igandezaleren bat berandu etortzen dena»

Igor Elizegi
Boluntarioa

«Pilatzen diren ibilgailu guztiak aintzat hartuta arazo gutxi izaten da»

Unai Arakama
Boluntarioa

«Mendira joaten direnak bideak ezagutzen dituztenak izaten dira»

Ibai Aizpeolea
Boluntarioa

Iparrorratzik gabe
Ikusle gehienak ingurukoak izaten direla aipatu dute bertatik bertara lanean aritzen direnek. Halere, euskalki ezberdinak entzuten dituzte, Zegamara Euskal Herri osotik etortzen delako jendea. Atzerritik baita ere. Herrialde Katalanetatik jende asko etortzen dela aipatu du Elizegik. «Tarteka tokatzen da frantsesez edo ingelesez galdetzen duen norbait. Keinuka denok ulertzen gara», gaineratu du. «Batzuetan ia hobeto da norbera gidatzen jartzea», egin du txantxa Etxezarretak. Barrezka erantzun diote ingurukoek. Halere, galduta ibiltzen direnak bakan batzuk izaten direla kontatu dute. «Kanpotik datozenak herrigunera etortzen dira. Mendira joten direnak ingurukoak izaten dira, mendi bideak ezagutzen dituztenak, eta ez da arazo nabarmenik izaten», azaldu du Aizpeoleak.

Zegama
Azken edizioak

Hassan Ait Chaou billabonarra Sancti Spiritun gora, zaleen animoen artean. JOSU IÑIGO

Oihana Kortazar, Aizkorriko gainera iristen. UXUE ARRESE

Kilian Jornet publikoa agurtzen, Zegamako helmugara iritsi berritan. I. GURRUTXAGA

Andraitzen gora ere jasotzen dituzte zaleen animoak korrikalariek. GOTZON ARANBURU

Bertikaleko korrikalariak, azken metroetan. SERGI COLOME.

Remi Bonnet eta Aritz Egea, argazkiak sinatzen. S COLOME.

Jose Antonio de Pablo 'Depa' eta Mikel Apaolaza. I. G.